

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Basauriko Udala**

**Ayuntamiento de Basauri**

**2017**





## AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURTZAPENAK.....	7
I. SARRERA.....	9
II. IRITZIA.....	11
II.1 LEGEAK BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.....	11
II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA.....	11
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	13
III.1 UDALA ETA ERAKUNDE AUTONOMOAK.....	13
III.1.1 Aurrekontua eta Kontabilitatea.....	13
III.1.2 Sarrera fiskalak.....	13
III.1.3 Langileria.....	13
III.1.4 Kontratazioa.....	14
III.1.5 Diru-laguntzak.....	16
III.1.6 Berankortasuna eta bestelako alderdiak.....	17
III.2 SOZIJETATE PUBLIKOAK.....	17
III.2.1 Langileria.....	17
III.2.2 Beste batzuk.....	17
IV. FINANTZA-AZTERKETA.....	18
V. URTEKO KONTUAK.....	20
V.1 UDALA.....	20
V.2 ERAKUNDE AUTONOMOAK.....	23
V.3 SOZIJETATE PUBLIKOAK.....	26
ERANSKINAK.....	27
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera eta ezargaria zaion araudia...	27
A.2 Aurrekontua eta aurrekontuko aldaketak.....	28
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak.....	29
A.4 Transferentziek eta diru-laguntzek eragindako sarrerak.....	30
A.5 Inbertsio errealeen besterentzea.....	31
A.6 Langileria-gastuak.....	32
A.7 Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa.....	34
A.8 Transferentziak eta emandako diru-laguntzak.....	35
A.9 Ibilgetua, Inbertsio higiezinak eta Lurraren ondare publikoa.....	36
A.10 Epe luzera kobratzeko zorrak.....	37
A.11 Pasibo finantzarioak.....	38



A.12	Aurrekontuko zordunak .....	38
A.13	Aurrekontuz kanpoko eragiketak .....	39
A.14	Kontratazioaren analisisa .....	39
A.15	Toki Erakunde autonomoak .....	41
A.15.1	Langileria .....	41
A.15.2	Kontratazio-espedienteak .....	42
A.16	Sozietate publikoak .....	43
A.16.1	Langileria .....	43
A.16.2	Bidebi Basauri, SL .....	43
A.17	Kontu bateratuak .....	44
<b>ALEGAZIOAK .....</b>		<b>47</b>
<b>ABREVIATURAS .....</b>		<b>59</b>
<b>I. INTRODUCCIÓN .....</b>		<b>61</b>
<b>II. OPINIÓN .....</b>		<b>63</b>
II.1	OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD .....	63
II.2	OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES .....	63
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....</b>		<b>65</b>
III.1	AYUNTAMIENTO Y ORGANISMOS AUTÓNOMOS .....	65
III.1.1	Presupuesto y Contabilidad .....	65
III.1.2	Ingresos Fiscales .....	65
III.1.3	Personal .....	65
III.1.4	Contratación .....	67
III.1.5	Subvenciones .....	69
III.1.6	Morosidad y otros Aspectos .....	69
III.2	SOCIEDADES PÚBLICAS .....	69
III.2.1	Personal .....	69
III.2.2	Otros .....	69
<b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO .....</b>		<b>70</b>
<b>V. CUENTAS ANUALES .....</b>		<b>73</b>
V.1	AYUNTAMIENTO .....	73
V.2	ORGANISMOS AUTÓNOMOS .....	76
V.3	SOCIEDADES PÚBLICAS .....	79



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

<b>ANEXOS .....</b>	<b>81</b>
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y normativa aplicable .....	81
A.2 Presupuesto y modificaciones presupuestarias .....	82
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos .....	83
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones .....	84
A.5 Enajenación de inversiones reales .....	85
A.6 Gastos de personal .....	86
A.7 Compra de bienes corrientes y servicios .....	88
A.8 Transferencias y subvenciones concedidas .....	89
A.9 Inmovilizado, Inversiones Inmobiliarias y Patrimonio Público del Suelo ..	90
A.10 Deudas a cobrar a largo plazo .....	91
A.11 Pasivos financieros .....	92
A.12 Deudores presupuestarios.....	92
A.13 Operaciones extrapresupuestarias .....	93
A.14 Análisis de contratación .....	93
A.15 Organismos Autónomos .....	95
A.15.1 Personal.....	95
A.15.2 Expedientes de contratación.....	96
A.16 Sociedades Públicas .....	97
A.16.1 Personal.....	97
A.16.2 Bidebi Basauri, SL.....	97
A.17 Cuentas consolidadas .....	98
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>101</b>

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 24a.  
Vitoria-Gasteiz, 24 de julio de 2019





## LABURTZAPENAK

20/2012 ELD	20/2012 Errege Lege-Dekretua, uztailaren 13koa, aurrekontuaren egonkortasuna eta lehiakortasunaren sustapena bermatzeko neurriei buruzkoa.
ADIF	Trenbideetako azpiegituren administratzailea.
BABA	Baldintza Administratibo Berezien Agiria.
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BBUP	Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoa.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
BOE	Babes Ofizialeko Etxebizitza.
DLO	38/2003 Legea, 2003ko azaroaren 17koa; Diru Laguntzen Lege Orokorra.
EA	Erakunde Autonomia.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EFPL	6/1989 Legea, 1989ko uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
EHJAN	Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorena.
EIOZ	Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga.
EJ	Eusko Jaurlaritza.
EPE	Enplegu Publikoaren Eskaintza.
GLL	Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.
HAPO	Hiri Antolaketako Plan Orokorra.
HHS	Hiri-hondakin solidoak.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
LOP	Lurraren ondare publikoa.
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
OHZ	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina.





## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan-programak agindutakoari jarraikiz, Basauriko Udalaren 2017ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

HKEEk gauzatutako Basauriko Udalaren Kontu Orokorraren aurreko fiskalizazio-lana 2007ko ekitaldiaren gainekoa izan zen.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea eragotzi gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Udalaren, erakunde autonomoaren eta sozietate publikoen egoeraren balantzea, galdu-irabazien kontua eta memoria; baita Udalaren eta bere erakunde autonomoen aurrekontuen likidazioa ere.

Sozietate publikoen kontuei dagokienez, gure lana kanpoko enpresek gauzatutako auditoretzako txostenak aztertzea izan da eta horretarako, beharrezko iritzitako proba osagarriak edo auditoretzako beste zenbait prozedura bideratu ditugu.

- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza-analisia.

Basauriko Udalak 40.877 biztanle zituen 2017ko urtarrilaren 1eko biztanleen udal erroldaren arabera, eta antolamenduan Udalaz gain ondoko erakunde autonomoak eta udal sozietate publikoak barne hartzen ditu:

- Kirolaren Udal Erakundea erakunde autonomoa: Basauriko Udalaren kirol zerbitzu guztien kudeaketa eta administrazioa.
- Kultur Etxea erakunde autonomoa: kulturaren gaineko lana liburutegien antolamenduaren bitartez, hitzaldiak, ikastaroak, erakusketak, errezitaldiak, kontzertuak, zine-emanaldiak, antzerkia eta antzeko beste ekintza batzuk.
- Basauriko Udal Euskaltegia erakunde autonomoa: helduen alfabetatze eta euskalduntzea ez ezik, baita euskararen irakaskuntza eta sustapenarekin loturiko beste jarduera batzuk ere Basauriko udalerrian.
- Norberaren autonomiarako komunitate- eta egoitza-laguntzarako udal zentroa erakunde autonomoa (Etxe Maitia adinekoen udal egoitza): Nagusien beharrian fisiko eta psikikoei arreta ematea.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- Behargintza Basauri-Etxebarri, SL (% 87,2): sustapen ekonomikoa eta tokiko garapena enplegu gaietan norabide bikoitzean: besteren konturako lan-munduan txertatzea, batetik eta enpresa-ekimenak sortu eta finkatzea, bestetik.
- Bidebi Basauri, SL (% 100): Basauriko Udalak aurreikusitako hirigintzako eragiketak kudeatu eta egikaritzea.



## II. IRITZIA

### II.1 LEGEAK BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

#### LANGILEAK

1. Basauriko Udalak uste du 2009ko maiatzaren 28an onartutako giza baliabideen arrazionalizazio eta antolakuntza-programaren arabera, borondatezko erretiroagatik 2017an 6 langileri guztira 299.418 euroren zenbatekoan ordaindutako sariak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsitako laneko irabaziak direla. Plan horrek ez du egiaztatzen Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 51. artikulua arabera, jokamolde horiek kaleratze kolektibo eta arrazoi objektiboengatik kaleratze edo kargugabetzeekin berdintzen utziko lukeen arrazoirik egon denik 2017an, zeinaren kalte-ordainak badauden PFEZetik salbuetsita, abenduaren 5eko 13/2013 FAREN 9. artikulua arabera.
2. Behargintza Basauri-Etxebarri, SLren Batzar Nagusiak 2017ko ekainaren 8an Sozietatearen koordinatzaile lanposturako onartutako ordainsariak % 25eko igoera izan du 2016ko ekitaldikoekiko eta honenbestez, 2017ko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 27ko 3/2017 Legearen 18.2 artikuluan finkatutakoa gainditzen du, gehiegizko kopurua indarreko araudian finkatutako salbuespenetatik batean ere justifikatzen ez dela.

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, Basauriko Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten entitateek zuzentasunez bete dute 2017ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

### II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Basauriko Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2017ko aurrekontu-ekitaldiaren jardura ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

#### ONDOKO GERTAKARIAK

Udalak 2018ko otsailaren 22an San Fausto, Bidebieta eta Pozokoetxe eremuaren Hiri Eraberrikuntzako Plan Berezia onartu zuen eta Plan honek ez du eremuaren kudeaketa egitea aurreikusten Basauriko Udalak, ADIFek eta Bilbao Ría 2000, S.A. 2017ko abenduaren 21ean izenpetutako Lankidetzaren Hitzarmenak jasotzen dituen parametroen arabera; honenbestez, Udalak adierazi zuen alde guztien adostasunez Plana bertan behera utzi eta aldean artean kitatzeko zeuden eskubide eta obligazio oro betetzeko asmoa zuela eta hala, 2018ko abenduaren 10ean aipatutako hitzarmenaren ebazpen-erabakia izenpetu zen,



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

zeinetan adierazten den Bilbao Ria 2000, SA eta ordura arte Udalak ordaindutako zenbatekoaren arteko aldeak, 1,3 milioi eurorenak, kalte-ordain izaera izango duela. Udalak 2018 eta 2020 artean ordainduko du kopuru hau, 420.460 euro urte bakoitzean gehi dagozkion interesak, erabakia hartu den datan 149.433 eurorena izan delarik.



### III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honek besarkatzen ditu bai ekonomia- eta finantza-jarduera arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

#### III.1 UDALA ETA ERAKUNDE AUTONOMOAK

##### III.1.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2017ko ekitaldiko Aurrekontu-proiektua 2 hilabeteko atzerapenez igorri zitzaion Udalbatzari, aurrekontuko araudiak finkatzen duen epearen aldean (urriaren 15a).
- Udalak urtero udal sozietate publikoen kontuen kanpoko auditoria kontratatzen du, baina soilik alderdi finantzarioei dagokienez, eta ez dira gainerako kontrol-moldeak gauzatzen, kontu-hartzailearen kontrola barne hartuta (legezkotasuna, efikazia eta efizientziaren kontrol ekonomikoa eta antolamendukoa) Bizkaiko tokiko aurrekontu-araudian xedatutakoaren arabera gauzatu behar direnak.

##### III.1.2 SARRERA FISKALAK

- Zerga zorrak zatikatzeko bi espedientetan, 84.137 eurorenak, zeinetan nahitaezkoa den bermeak aurkeztea, onespena ez die alkateak eman, Udalaren Kudeaketa, Diru-bilketa eta Ikuskaritzako Ordenantza Fiskal Nagusiak agintzen duen moduan. Gainera, ez da salbuespena justifikatu aipatutako ordenantzaren finkatutako gehienezko epea gainditzen duten ordainketa-planak onartzeko, ez eta bermeak eratzetik salbuesteko ere.

##### III.1.3 LANGILERIA

- Udalaren LZk, onartu eta 2016ko apirilaren 29ko BAOan argitara emandakoak, 40 lanpostu barne hartzen ditu, guztizkoaren gainean % 15 egiten dutenak, aurrekontuan zuzkidurarik izan gabe ekitaldian horiek betetzea aurreikusi ez delako. Gainera, lanpostu hauetako bitan ez da adierazten ez zuzkidura-moldea, ez lanpostu horiei atxikitako destino-maila ere. LZk une oro erakundearen beharren egiazko adierazpidea behar du izan.
- Basauriko Udal Euskaltegia erakunde autonomoaren lanpostu-zerrenda 1999an onartu zen eta Kultur Etxea erakunde autonomoarena, berriz, 2006an. Bi lanpostu-zerrenden antzintasuna aintzat hartuta, gomendagarria litzateke gaurkotzea; are gehiago, gogoan hartuz gero ez direla 2017ko ekitaldiko aurrekontu-plantillan barne hartutako lan-kontratu mugagabeko 3 lanpostu jaso (ikus A.15.1).
- 2017ko abenduaren 31n erakunde autonomoek hutsik dituzte LZn jasotako lan kontratu finkoko langileentzat gordetako 37 lanpostu. Aipatutako postu horietatik 26 lanpostu hutsa bete arte aldi baterako kontratua duen langileriak betetzen ditu. Beharrezkoa da



erakunde autonomoek dagozkion lan-eskaintzak deitzea indarreko legeriak horretarako bide eman bezain laster.

- Lehenagoko urteetan Udalean esleitutako 6 zerbitzu-eginkizunen iraupenak indarreko legediak finkatutako gehieneko epea gainditzen du.
- 2017ko abenduaren 31n indarrean jarraitzen dute Udalean programako bitarteko funtzionarioen 2 izendapen eta erakunde autonomoetan, 3 lan-kontratu obra edo zerbitzu jakinerako, guztiak ere 4 urtetik gorako antzintasunekoak. Gainera, Etxe Maitia Egoitza erakunde autonomoan 2014az geroztik urtero iraupen mugatuko bitartekotasuneko 2 lan-kontratu luzatu dira. Kontratu hauen iraupenak adierazten du garatutako egitekoek iraunkortasun izaera dutela eta honenbestez, zuzendu egin behar dela horien egoera.
- Kultur Etxea erakunde autonomoak ez du lan-poltsarik administrari laguntzaileak eta liburutegikoak aldi baterako kontratatuzko; arreta-laguntzaileen eta mantentze-lanekoan lan-poltsa, berriz, 2009koa da, zerbitzuaren beharrak asetzeko nahikoa ez dela. Horregatik guztiagatik, 2017an lehenago erakundearen kontraturiko pertsonetara jo du edo Lanbidera eta guztira 24 kontratu egin ditu, btez bestean 56 eguneko iraupenekoak. Erakundeak berariazko probak deitu behar lituzke espezialitate horietan lan-poltsa berriak osatzeko.
- Udalak eta erakunde autonomoek ez dituzte ondorio fiskaletarako aitortzen euren langileei ordaintzen dizkieten ez gizarte prestazioen dirutan emandako ordainsariak, ez egun-sari eta joan-etorrien gastuak ere, salbuetsiak dauden arren, aitortu egin behar liratekeenak.
- 2008az geroztik Udalean produktibitate-osagarria ordaintzen ari zaio behin-behineko langilearen postua betetzen duenari, Alkatetza-dekretu bitartez onartutakoa; ordea, langile hauei produktibitate-osagarria ordaintzea ez da aurreikusi hori arautzen duen Udalbatzaren Erabakian. Komenigarria litzateke LZ berrikustea, kasu guztietan ordainsari hori lanpostuari txertatzeko.
- Udalak 2017an 42.753 euroren produktibitate-osagarria ordaindu zien langile guztiei irizpide orokorrak baliatuta. Ordainsari kontzeptu hau funtzionario bakoitzak bere lanpostuari atxikitako egitekoak betetzean erakutsitako aparteko etekin, interes edo ekimena saritzeko erabili beharko litzateke.

### III.1.4 KONTRATAZIOA

#### Kontratazio-espeditenteak

Udalaren eta erakunde autonomoen kontratazio administratiboa aztertu dugu eta honako alderdi hauek bereizi ditugu (ikus A.14 eta A.15.2):

- San Miguel eta Basauri metro-geltokiaren artean bidaiarien doaneko garraio-zerbitzuaren kontratua izapidetzean (8. espeditentea) ez da prestazioaren proiekturik egin, zerbitzuaren kostu ekonomikoa jasoz, eta ez da erabiltzaileen desplazamendu-beharrei aurre egiteko jada zegoen zerbitzuaren gutxiegitasuna justifikatu, ez eta BFAren alde



- aurreko adostasuna eskuratu, ez behin-behinean onartu bi zerbitzuak ustiatzeko koordinazio-planik ere, herriko zerbitzuak herriarteko beste zerbitzu batzuekin batera ematen diren kasuetan egiten den moduan (4/2004 Legea, martxoaren 18koa, Errepide bidezko bidaiarien garraioari buruzkoa eta hura garatzen duen Erregelamendua).
- Udalak 735.967 euroren zenbatekoan esleitutako 2 kontraturen BABek modu orokorrean definitutako balorazio-irizpideak jasotzen dituzte (proiektuaren diseinua, jardueren programak eta garatu beharreko programak) (3 eta 4 espedienteak).
  - Aztertu diren Udalaren 8 espedienteren BABak -6,9 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoak (1etik 4ra bitarteko, 6, 7 14 eta 15 espedienteak)- eta erakunde autonomoek guztira 566.787 euroan esleitutako 2 espedienteren (1 eta 4 espedienteak) BABak eskaintza ezohiko edo neurritz kanpoko kalifikazioa mugatzen dute soilik ekonomikoki eskaintzarik onuragarrienarentzat.
  - Argindarra hornitzea xede duen espedienteak, Udalak aleko prezioetan esleitu eta 2017an 841.347 euroren gastua eragin duenak (14. espedienteak), formulari lotu gabeko irizpide modura jasotzen da produktu eta zerbitzu osagarriak eskaintzea, % 2ko gehieneko puntuazioarekin. Esleipendunak irizpide honengatik gehieneko puntuazioa eskuratu zuen, eskaintzan 14 zerbitzu barne hartu baitzituen; horietako batzuek, baina, Udalari kostu ekonomikoa eragiten diote eta halakorik ez zen pleguetan aurreikusi. Gaineras, kontratuak iraun duen bitartean esleipendunak ez du zerbitzu horietarik bakar bat ere eman.
  - Udalak 4,4 milioi euroan esleitutako kontratu baten pleguek ausarkeria-atalasea lizitazio-aurrekontuaren % 10ean finkatzen du eta ez onartutako eskaintzak osotasunean hartuta. Egitate honek eta prezio irizpidearen puntuen esleipen gehiengoa batez bestekoaren aldean % 9ko merkatzea gainditzen duen eskaintzari emateak ez du prezioan eskaintza lehiakorrik aurkeztera bultzatzen (5. espedienteak).
  - Etxe Maitia Egoitza erakunde autonomoaren kontratuaren helburua elikagaiak hornitzea da eta urtebeterako esleitu da 82.922 euroren zenbatekoan (3. espedienteak); kontratu honetan Europako zuzentarauak finkatutakoa gainditzen duen kaudimen tekniko eta ekonomikoa eskatzen da, espedientearen justifikatu gabe zergatik finkatu den kaudimen-zenbateko hori.
  - Udalak administrazioko kontratu berezi modura kalifikatu du hiri-garbiketa eta hiri-hondakin solidoen bilketa- eta garraio-kontratua, 2010eko ekitaldian esleitu zena, 8 urteko iraupenekoa, beste bitara luzagarria, 32,4 milioi euroren zenbatekoan (17. espedienteak); ordea, arrisku-osagairik ez izateak zerbitzu-kontratutzat hartzera behartzen du, indarraldia gehienez 6 urtetara mugatuz.
  - Udalak guztira 1,5 milioi euroan esleitutako 2 espedientetan (14 eta 15 espedienteak) txosten teknikoak ez du behar hainbat arrazoitzen formulari lotu gabeko irizpideei emandako puntuazioak, aurkeztutako eskaintzak deskribatzera mugatuz.
  - Kirolaren Udal Erakundea erakunde autonomoak prozedura ireki bidez esleitu zuen, BAOon publikotasuna emanez, kirol-jarduerak garatu eta gauzatzeko zerbitzu-kontratua, 501.787 euroren zenbatekoan; alabaina, EBAOn ere argitaratu behar zatekeen, indarrean



baitzegoen alderdi hori arautzen zuen Europako zuzentarauaren transposizio zuzena (1. espedientea).

- Udalak lehiaketa publiko bidez esleitu zuen lursail bat besterendu eta bertan ondoren babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko administrazioko kontratu berezia (16. espedientea); lehiaketa honetara lizitatzailerik bakar bat aurkeztu zen eta honek, gerora kontratua hirugarren bati laga zion; hona hemen azaleratu diren akatsak:
  - Kontratua esleitzeko 4 hilabetetik gorako atzeraldia Baldintza administratibo berezien agirian finkatutako gehienezko epearen aldean.
  - Pleguetan aurreikusitako kaudimen ekonomiko-finantzarioa eta tekniko-profesionala egiaztatzeko baliabideak eratze-eskritura eta JEZen alta eman izana eskatzera mugatzen dira.
  - Kontratuaren lagapena onartu zen unean ez zen betetzen kontratuaren % 20 egikaritua egon behar izateko baldintza.

### Beste batzuk

- Udalak eta erakunde autonomoek ez dituzte udal kudeatzaileen eta zerbitzu-kontratuen esleipendun diren enpresen arteko harremana argitzeko eskatutako jarraibideak ebatzi.
- Kultur Etxea erakunde autonomoan duela zenbait urtez geroztik 2 zerbitzuren prestazioa erosketa txiki modura izapidetzen da, 2017an guztira 75.653 euroren egikaritza izan duena. Urtean egin duen zenbatekoa eta gastu hauek denboran izan duten jarraitutasuna aintzat hartuta, gomendagarria litzateke, gutxienez, prozedura negoziatua baliatuta kontratatzea (ikus A.15.2).

### III.1.5 DIRU-LAGUNTZAK (IKUS A.8)

- Udalak urteko aurrekontuarekin batera onartzen duen diru-laguntzen plan estrategikoak ez du 3 urteko aldirako aurreikuspenik egiten, ezta eskuratu nahi diren helburu eta ondorioak zehazten ere.
- Aztertu diren 2 diru-laguntza izendunen emakida-ebazpenetan, 392.276 eurorenak, ez dira arautu obligazio eta konpromiso ekonomikoak, gauzatu beharreko egintzak, egikaritzaren jarraipen eta kontrol-baliabideak, ez eta beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasun edo bateraezintasuna ez eta onuradunek diru-laguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko dituzten epeak eta moldeak ere. Gainera, 288.000 euroan esleitutako kontratuan ez da agintzen 3 eskaintza eskatu izana egiaztatuko duen dokumentazioa aurkezteko, kontratu txikientzat aurreikusitako kopuruak gainditzen dituzten haietan.

### III.1.6 BERANKORTASUNA ETA BESTELAKO ALDERDIAK

- Diruzainak mamitutako hiruhileko txostenetan, Basauriko Udalaren merkataritzako eragiketetan ordainketa epeak betetzeari buruzkoan, azaleratu da badaudela 346.381





euoren fakturak (2017ko ekitaldian egindako ordainketa guztien gainean % 1,9) legez finkatutako epea gainditzen dutenak:

- Udalaren gardentasun-atariak gaurkotu gabe dauka emandako diru-laguntza eta laguntza publikoei buruzko informazioa, ez eta konfiantzako langileen ordainsariei buruzkoa ere.

## **III.2 SOZIETATE PUBLIKOAK**

### **III.2.1 LANGILERIA**

- Bidebi Basauri SLn dagoen goi zuzendaritzako kontratua ez zaio Lan-merkatua eraberritzeko premiazko neurriei buruzko uztailaren 6ko 3/2012 Legeari egokitu, enpresaburuak atzera egiteagatik ordaintzen diren kalte-ordainei dagokienez, non kontratua iraungitzen zaion pertsonak karrerako funtzionario izaera baitu.

### **III.2.2 BESTE BATZUK**

- Behargintza Basauri-Etxebarri SL sozietateak data berean eta epe bererako 4 kontratu txiki izapidetu ditu, prestakuntza ekintzak ematea xede dutenak. Kontratu hauen guztien aurrekontu metatua 41.965 euro denez gero, prozedura negoziatu bidez izapidetu behar ziratekeen.



#### IV. FINANTZA-AZTERKETA

Ondotik, Udalak 2015-2017 aldian zehar likidatutako magnitude nagusien bilakaera erakutsiko dugu.

FINANTZA ANALISIA	Euroak milakotan			Euroak/biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	(*)2015	(*)2016	2017	(*)2015	(*)2016	2017
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	19.074	18.803	20.579	462	459	503
Transf. eta dirul. arruntak (4. kap.).....	26.347	25.217	27.480	638	615	672
Ondare sarrerak (5. kap.).....	165	123	124	4	3	3
<b>A. Diru-sarrera arruntak</b> .....	<b>45.586</b>	<b>44.143</b>	<b>48.183</b>	<b>1.104</b>	<b>1.077</b>	<b>1.178</b>
Langileria gastuak (1. kap.).....	13.696	13.226	13.439	332	323	329
Ondasun arrun. erosk. eta zerb. (2. kap.).....	19.675	20.081	20.049	476	490	490
Transf. eta dirul. arruntak (4. kap.).....	9.607	9.668	9.141	233	236	224
<b>B. Funtzionamendu-gastuak</b> .....	<b>42.978</b>	<b>42.975</b>	<b>42.629</b>	<b>1.041</b>	<b>1.049</b>	<b>1.043</b>
<b>Aurrezki gordina (A-B)</b> .....	<b>2.608</b>	<b>1.168</b>	<b>5.554</b>	<b>63</b>	<b>28</b>	<b>135</b>
-Finantza gastuak (3. kap.).....	145	117	96	4	3	2
<b>Emaitza arrunta</b> .....	<b>2.463</b>	<b>1.051</b>	<b>5.458</b>	<b>59</b>	<b>25</b>	<b>133</b>
-Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	1.345	1.175	917	33	29	22
<b>Aurrezki garbia</b> .....	<b>1.118</b>	<b>(124)</b>	<b>4.541</b>	<b>26</b>	<b>(4)</b>	<b>111</b>
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.).....	21	269	1.707	1	7	42
Jasotako kapitaleko diru-laguntzak (7. kap.).....	1.034	140	353	25	3	9
-Inbertsio errealak (6. kap.).....	(4.139)	(1.245)	(1.430)	(100)	(30)	(35)
-Emandako kapitaleko diru-laguntzak (7. kap.).....	(332)	(413)	(209)	(8)	(10)	(5)
<b>Kapital eragiketen emaitza</b> .....	<b>(3.416)</b>	<b>(1.249)</b>	<b>421</b>	<b>(82)</b>	<b>(30)</b>	<b>11</b>
<b>Eragiketa ez finantzar. emaitza (1etik 7rako kap.)</b> .....	<b>(953)</b>	<b>(198)</b>	<b>5.879</b>	<b>(23)</b>	<b>(9)</b>	<b>144</b>
<b>Diruzaintza Geldikina</b> .....	<b>4.272</b>	<b>2.529</b>	<b>7.059</b>	<b>103</b>	<b>62</b>	<b>173</b>
<b>Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina</b> .....	<b>1.255</b>	<b>20</b>	<b>3.423</b>	<b>30</b>	<b>-</b>	<b>84</b>
<b>Zorpetzea</b> .....	<b>6.828</b>	<b>5.653</b>	<b>4.735</b>	<b>165</b>	<b>138</b>	<b>116</b>

(\*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

**Sarrera arruntak:** 2017ko ekitaldian kitatutako diru-sarrera arruntek % 9,2 egin dute gora 2016koen aldean eta % 5,7, 2015ekoen aldean. Hona hemen kontzeptuen araberrako bariazio nagusiak:

- **Zergak:** Eskubide aitortuek gora egin dute OHZren eta EIOZren diru-bilketak gora egin izanaren ondorioz, hurrenez hurren 633.390 eta 178.967 euroan, izan ere katastro-balio berriak aplikatu dira eta jarduera ekonomikoa berroneratu da.
- **Tasak eta bestelako sarrerak:** Eskubide aitortuak % 10,9 gehitu dira, nagusiki 2016an enpresa bati ikuskaritzak jarritako 363.097 euroren zehapena baliogabetu zelako EHJANren epai baten ondorioz, eta hirigintzako lizentzien kontzeptuan 198.400 euroan gehitu zelako diru-bilketa.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** 2017an % 9 egin dute gora eta 2016an % 4,3 egin du behera 2015eko aldean. Bariazio hauek Udalkutxatik jasotako transferentziei dagozkie.



**Funtzionamendu-gastuak:** Apenas izan dute aldaketarik aztergai izan den aldian. 2017an % 0,8 murriztu dira aurreko ekitaldiaren aldean. Hona hemen bariazio adierazgarrienak:

- **Langile gastuak:** % 1,6 igo dira, batik bat, langileen ordainsariak % 1 igo direlako.
- **Ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioa:** Osotasunean bariazio txikia izan du eta % 0,2 murriztu da 2016ko ekitaldiaren aldean.
- **Diru-laguntzak eta transferentzia arruntak:** % 5,5 egin dute behera 2016ko ekitaldiaren aldean, nagusiki erakunde autonomoei egiten zaizkien transferentziak 684.108 euro murriztu direlako. Beste aldera, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak 268.540 euroan gehitu dira.

**Aurrezki gordina eta garbia:** 2017an 4 milioi euroz gainera gehitu dira, sarrera arruntek gora egin izanaren ondorioz, gastu arruntek ez baitute aldaketa esanguratsurik izan.

**Kapital-eragiketen emaitza:** 2017ko ekitaldian, 2015 eta 2016koetan ez bezala, kapital-eragiketen emaitza positiboa izan da 420.875 euroan, Lurraren Ondare Publikoa 1,7 milioi euroan besterentzetik eskuratutako diru-sarreraren ondorioz. Gainera, 2015ean egindakoaren aldean, 2016an eta 2017an inbertsioak behera egin duela azpimarratu behar da.

**Diruzaintza-geldikina eta Zorpetzea** Kapitaleko eragiketen emaitzak hobera egin izanak eragin du Diruzaintza Geldikina eta Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina, biak ala biak, berroneratzea; honela, bada, aztergai izan den aldian % 172,7 gehitu dira, 2015eko 1,3 milioi euroetatik 2017an 3,4 milioi euro egitera aldatuaz. Aldi berean, zorpetzeak behera egin du eta sarrera arrunten % 10etik behera gelditu da.

**Ondorioa:** Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina positiboa izan da hiru ekitaldietan, nahiz 2016an ia deuseza izan zen. Alabaina, 2017an gora egin du, batik bat gastu arruntei eutsi izanari, sarrera arrunten igoerari eta Lurraren Ondare Publikoari esker. Aztertutako aldian udalaren zorpetzea 2,1 milioi euro murriztu da.

**Aurrekontuaren egonkortasuna:** Udalaren Kontu-hartzaitzak txostena jaulki zuen egiaztatuz Administrazio Publikoaren sektorea osatzen duten erakundeek (Udalak, erakunde autonomoek eta udal sozietate publikoek) 2017ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioan aurrekontuaren egonkortasun, zor publiko, merkataritzako zor eta gastuaren araua bete dutela. Txostenean zera jaso da:

- Finantzatzeko gaitasuna positiboa izan da.
- Zor biziaren bolumena diru-sarrera ez finantzarioen gainean % 9,11koa da, % 60ko mugaz beheitikoa.
- Gastuaren araua bete da, % 4,3 egin baitu behera 2017ko ekitaldiaren gastu zenbagarriak aurrekoaren aldean.

**V. URTEKO KONTUAK****V.1 UDALA**

## 2017-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	____ AURREKONTUA ____			ESKUBIDE		KOBR.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	KITAT.	KOBR.	GABEA	EXEK.	
1. Zerga zuzenak .....	A.3	11.953	-	11.953	12.406	11.880	526	104	
2. Zeharkako zergak .....	A.3	600	-	600	908	694	214	151	
3. Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.3	6.699	117	6.816	7.265	5.744	1.521	107	
4. Transferentzia arruntak .....	A.4	25.386	1.043	26.429	27.480	26.768	712	104	
5. Ondare-sarrerak.....		166	-	166	124	123	1	75	
6. Inbertsio errealen besterentzea .....	A.5	300	205	505	1.707	1.704	3	338	
7. Kapital-transferentziak .....	A.4	50	252	302	353	238	115	117	
8. Aktibo finantzarioak .....		127	2.529	2.656	88	88	-	(*69)	
<b>GUZTIRA</b>		<b>45.281</b>	<b>4.146</b>	<b>49.427</b>	<b>50.331</b>	<b>47.239</b>	<b>3.092</b>	<b>(*107)</b>	

(\*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza-geldikin bidez finantzatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	____ AURREKONTUA ____			OBLIG.		ORDAIN.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	EXEK.	
1. Langileria-gastuak.....	A.6	13.252	990	14.242	13.439	13.215	224	94	
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontrat.....	A.7	20.862	5	20.867	20.049	17.786	2.263	96	
3. Gastu finantzarioak.....	A.11	147	(42)	105	96	91	5	91	
4. Transferentzia arruntak .....	A.8	8.628	580	9.208	9.141	9.139	2	99	
5. Kontingentzia funtsa.....		-	-	-	-	-	-	-	
6. Inbertsio errealak .....	A.9	1.094	2.613	3.707	1.430	820	610	39	
7. Kapital-transferentziak .....	A.8	254	-	254	209	190	19	82	
8. Aktibo finantzarioak .....		127	-	127	121	121	-	95	
9. Pasibo finantzarioak.....	A.11	917	-	917	917	810	107	100	
<b>GUZTIRA</b>		<b>45.281</b>	<b>4.146</b>	<b>49.427</b>	<b>45.402</b>	<b>42.172</b>	<b>3.230</b>	<b>92</b>	
<b>SARRERAK - GASTUAK</b>					<b>4.929</b>				

## AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	ZUZENK./	KOBR./	AZKEN
		ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA
Zordunak.....	A.12	4.630	338	1.977	2.315
Hartzekodunak .....		2.906	-	2.906	-
<b>GUZTIRA</b>			<b>338</b>		



AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak .....	50.331
Obligazio aitortuak .....	(45.402)
Aurrekontu itxietan eskubideen bariazioa .....	(338)
Obligazioen baliogabetzea aurrekontu itxietan.....	-
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA</b>	<b>4.591</b>
Diruzaintza geldikinarekin finantzaturako obligazioak .....	697
Finantzaketako desbideratzeak .....	(1.867)
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA</b>	<b>3.421</b>

DIRUZAINZAKO GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza .....	8.330
Aurrekontuko zordunak (A.12) .....	5.407
Aurrekontuz kanpoko zordunak (ikus A.13) .....	52
Aurrekontuko hartzekodunak .....	(3.230)
Aurrekontuz kanpoko zordunak (ikus A.13) .....	(1.314)
Beste ente publiko batzuen baliabideengatik hartzekodun (ikus A.13).....	(138)
Aplikatzeko dauden sarrerak (A.13) .....	(5)
Aplikatzeko dauden ordainketak (A.13) .....	80
<b>DIRUZAINZAKO GELDIKINA GUZTIRA 17.12.31-N</b>	<b>9.182</b>
Zalantzako kobragarritasuneko zordunak (ikus A.12) .....	(2.123)
Atxikitako finantzaketaren soberakina (ikus A.4) .....	(3.636)
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GELDIKINA 17.12.31-N</b>	<b>3.423</b>

ZORPETZEA	Euroak milakotan
Zorpetzea 17.12.31n (ikus A.11) .....	4.735
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.735</b>



**EGOERAREN BALANTZEA 2017 ETA 2016-KO ABENDUAREN 31-N** Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSK.	2017	2016	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	ERANSK.	2017	2016
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>		<b>146.554</b>	<b>151.325</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>		<b>146.668</b>	<b>145.784</b>
Ibilgetu ez-materiala .....A.9		485	489	Ondarea .....		36.247	36.247
Ibilgetu materiala .....A.9		104.387	106.777	Sortutako ondarea.....		109.814	109.093
Ibilgetuko inbertsioak.....A.9		4.951	5.059	Jasotako diru-lag, emaitz. egotzi gabe .		607	444
Lurraren ondare publikoa.....A.9		5.768	6.909				
Epe luz. finantza inbertsioak .....		27.812	28.965				
Epe luzera kobratzeko zordunak .A.10		3.151	3.126				
				<b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b>		<b>5.633</b>	<b>6.529</b>
				Epe luzeko zorrak .....	A.11	3.905	4.735
				Hartzek. eta ordaint. bst kontu batz.....		1.728	1.794
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>		<b>11.812</b>	<b>8.772</b>	<b>PASIBO ARRUNTA</b>		<b>6.065</b>	<b>7.784</b>
E/lab. kobratzeko zordunak.....		3.412	2.706	Zorrak epe laburrera .....		1.517	1.626
Epe lab. finantza inbertsioak .....		70	62	Hartzek. eta ordaintz. bst kontu batz. ..		4.548	6.158
Eskud. eta bst. akt. lik. baliok.....		8.330	6.004				
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>		<b>158.366</b>	<b>160.097</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA</b>		<b>158.366</b>	<b>160.097</b>

**ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA 2017 ETA 2016** Euroak milakotan

	2017	2016
Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak .....	19.724	18.268
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak .....	28.166	25.181
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b. ....	943	514
<b>KUDEAK. ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>48.833</b>	<b>43.963</b>
Langileria-gastuak .....	(13.595)	(13.411)
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak.....	(9.350)	(10.080)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b. ....	(20.187)	(19.814)
Ibilgetua amortizatzea .....	(3.198)	(3.402)
<b>KUDEAK. ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>(46.330)</b>	<b>(46.707)</b>
<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA</b>	<b>2.503</b>	<b>(2.744)</b>
<b>IBILGETU EZ FINANTZARIOAREN ETA BESTE KONTU BATZUEN EMAITZA</b>	<b>(449)</b>	<b>304</b>
<b>ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>2.054</b>	<b>(2.440)</b>
<b>ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>(1.249)</b>	<b>(1.054)</b>
<b>EKITALDIKO EMAITZA</b>	<b>805</b>	<b>(3.494)</b>



AURREKONT- EMAITZ. ETA ONDARE-EMAITZAREN ARTEKO BERDINKATZEA		Euroak milakotan
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA</b>		<b>4.929</b>
<b>+ Gehik.</b>		<b>2.674</b>
Ibilgetu materialeko altak .....	1.234	
Lurraren Udal Ondareko altak .....	346	
Ibilgetu ukiezineko altak .....	102	
Gastuen 8. kapituluko obligazioak Aktibo finantzarioak .....	121	
Gastuen 9. kapituluko obligazioak Pasibo finantzarioak .....	917	
Beste kontzeptu batzuk .....	(46)	
<b>(-) Murrizketak .....</b>		<b>(6.798)</b>
Ibilgetua amortizatzea .....	(3.198)	
Ibilgetu materialeko baje kontularitzako balio garbia .....	(666)	
Lurraren ondareko baje kontularitzako balio garbia .....	(1.459)	
8. kapituluko eskubideak. Finantza aktiboak .....	(88)	
Jasotako vs egotzitako diru-laguntzak 2017an .....	(172)	
Finantza aktibo eta pasiboen narriadura eta emaitza .....	(1.215)	
<b>ONDAREAREN EMAITZA</b>		<b>805</b>

## V.2 ERAKUNDE AUTONOMOAK

2017-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA Euroak milakotan

ESKUBIDE KITATUAK	ERANSK.	KIROLAREN UDAL	ETXE MAITIA	EUSKALTEGIA	KULTUR
		ERAKUNDEA	EGOITZA		ETXEA
3. Tasak eta bestelako sarrerak .....		1.364	1.290	90	475
4. Transferentzia arruntak .....		985	1.285	1.606	2.758
5. Ondare-sarrerak .....		20	-	-	-
6. Inbertsioen besterentzea .....		-	5	-	-
7. Kapital-transferentziak .....		-	-	-	30
8. Aktibo finantzarioak .....		-	-	8	10
9. Pasibo finantzarioak .....		11	-	-	-
<b>GUZTIRA</b>		<b>2.380</b>	<b>2.580</b>	<b>1.704</b>	<b>3.273</b>

Euroak milakotan

OBLIGAZIO AITORTUAK	ERANSK.	KIROLAREN UDAL	ETXE MAITIA	EUSKALTEGIA	KULTUR
		ERAKUNDEA	EGOITZA		ETXEA
1. Langileria-gastuak .....	A.15	1.490	2.250	1.784	2.013
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontr.....		912	315	38	1.249
4. Transferentzia arruntak .....		-	-	2	4
6. Inbertsio errealak .....		-	-	5	92
8. Aktibo finantzarioak .....		16	-	7	-
<b>GUZTIRA</b>		<b>2.418</b>	<b>2.565</b>	<b>1.836</b>	<b>3.358</b>



## AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA	ETXE MAITIA EGOITZA	EUSKALTEGIA	KULTUR ETXEA
<b>ZORDUNAK</b>				
Hasierako zorra.....	1	79	197	72
Baliogabetzeak .....	-	-	-	-
Kobrantzak .....	-	34	197	70
Azken zorra .....	1	45	-	2
<b>HARTZEKODUNAK</b>				
Hasierako zorra.....	138	14	5	142
Baliogabetzeak .....	-	-	-	-
Ordainketak.....	138	14	5	142
Azken zorra .....	-	-	-	-

## AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

	KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA	ETXE MAITIA EGOITZA	EUSKALTEGIA	KULTUR ETXEA
Ekitaldiaren emaitza.....	(38)	15	(132)	(85)
Ekitaldi itxien emaitza .....	-	-	-	-
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA</b>	<b>(38)</b>	<b>15</b>	<b>(132)</b>	<b>(85)</b>
<b>EMAITZARI DOIKETAK</b>				
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako oblig.....	54	31	38	180
Finantzaketako desbideratzeak .....	-	-	-	(9)
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA</b>	<b>16</b>	<b>46</b>	<b>(94)</b>	<b>86</b>

## DIRUZAINZAKO GELDIKINA

Euroak milakotan

	KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA	ETXE MAITIA EGOITZA	EUSKALTEGIA	KULTUR ETXEA
Diruzaintza .....	299	92	50	348
Aurrekontuko zordunak .....	-	148	149	101
Hartzekodun ez aurrekontuzkoak .....	-	-	-	-
Aurrekontuko hartzekodunak .....	(130)	(7)	(4)	(161)
Hartzekodun ez aurrekontukoak.....	(108)	(141)	(122)	(134)
Aplikatzeko dauden sarrerak.....	(45)	-	(19)	(35)
<b>DIRUZAINZTA GELDIKINA GUZTIRA 2017.12.31-N</b>	<b>16</b>	<b>92</b>	<b>54</b>	<b>119</b>
Zalantza kobragarritasuna duten zordunak .....	-	(45)	-	(2)
Atxikitako finantzaketa-soberakina .....	-	-	-	(13)
<b>GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA 2017-12-31-N</b>	<b>16</b>	<b>47</b>	<b>54</b>	<b>104</b>





## BALANTZEA 2017-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA	ETXE MAITIA EGOITZA	EUSKALTEGIA	KULTUR ETXEA
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>15.521</b>	<b>1.882</b>	<b>100</b>	<b>9.992</b>
labilgetu ez-materiala .....	4	-	-	1
labilgetu materiala .....	15.514	1.882	99	9.987
Finantza inbertsioak epe luzera .....	3	-	-	-
Epe luzera kobratzeko zordunak .....	-	-	1	4
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>306</b>	<b>197</b>	<b>204</b>	<b>453</b>
Zordunak eta kobratz. bste knt. btzu e/lab. ....	-	103	149	99
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	7	2	5	6
Eskudirua eta bst. aktibo likido baliokide batz ...	299	92	50	348
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>15.827</b>	<b>2.079</b>	<b>304</b>	<b>10.445</b>
<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>15.544</b>	<b>1.931</b>	<b>160</b>	<b>10.115</b>
Ondarea .....	22.230	2.607	105	12.296
Sortutako ondarea.....	(6.686)	(676)	55	(2.181)
Aurreko ekitaldietako emaitza .....	(6.053)	(610)	194	(1.866)
Ekitaldiaren emaitza.....	(633)	(66)	(139)	(315)
<b>PASIBO ARRUNTA</b>	<b>283</b>	<b>148</b>	<b>144</b>	<b>330</b>
Zorrak epe laburrera .....	14	-	-	6
Hartzekod. eta ordaintz. bst kontu batz. ....	269	148	144	324
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>15.827</b>	<b>2.079</b>	<b>304</b>	<b>10.445</b>

## 2017-KO EKITALDIKO EMAITZEN KONTUA

Euroak milakotan

	KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA	ETXE MAITIA EGOITZA	EUSKALTEGIA	KULTUR ETXEA
Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak.....	1.346	1.290	89	471
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak.....	985	1.285	1.606	2.788
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....	37	-	1	4
<b>KUDEAK. ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>2.368</b>	<b>2.575</b>	<b>1.696</b>	<b>3.263</b>
Langileria-gastuak .....	(1.498)	(2.255)	(1.793)	(2.026)
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak.....	-	-	(2)	(4)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b. ....	(904)	(310)	(29)	(1.232)
labilgetua amortizatzea.....	(599)	(76)	(11)	(316)
<b>KUDEAK. ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>(3.001)</b>	<b>(2.641)</b>	<b>(1.835)</b>	<b>(3.578)</b>
<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA</b>	<b>(633)</b>	<b>(66)</b>	<b>(139)</b>	<b>(315)</b>
<b>IBILGETU EZ FINANTZ. ETA BESTE KONTU-SAIL BATZ. EMAITZA</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
<b>ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>(633)</b>	<b>(66)</b>	<b>(139)</b>	<b>(315)</b>
<b>ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIKO EMAITZA</b>	<b>(633)</b>	<b>(66)</b>	<b>(139)</b>	<b>(315)</b>

**V.3 SOZETATE PUBLIKOAK**

BALANTZEA 2017KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	ERANSKINA	BEHARGINTZA BASAURI-ETXEBARRI	BIDEBI BASAURI
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>		<b>35</b>	<b>8</b>
lbilgetu ez-materiala .....		1	5
lbilgetu materiala .....		34	3
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>		<b>511</b>	<b>1.813</b>
Merkatar. zord. eta kobr. beste kntu batzuk .....		101	1.387
Aldizkakotzeak epe laburrera .....		1	-
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk .....		409	426
<b>AKTIBOA</b>		<b>546</b>	<b>1.821</b>
<b>ONDARE GARBIA</b>		<b>441</b>	<b>55</b>
<b>Funts propioak</b> .....		<b>428</b>	<b>49</b>
Kapitalekoak .....		3	60
Erreserbak .....		41	1
Aurreko ekitaldietako emaitzak .....		8	(12)
Bazkideen beste ekarpen batzuk .....		1.199	-
Ekitaldiaren emaitza .....		(823)	-
<b>Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak</b> .....		<b>13</b>	<b>6</b>
<b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b>		<b>-</b>	<b>2</b>
Atzeratutako zergengatiko pasiboak .....		-	2
<b>PASIBO ARRUNTA</b>		<b>105</b>	<b>1.764</b>
Epe laburreko zuzkidurak .....		20	-
Zorrak epe laburrera .....		11	-
Taldeko eta elkartutako enpresekiko epe laburreko zorrak .....	A.16.2	-	416
Merkataritzako zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk .....		74	93
Aldizkakotzeak epe laburrera .....	A.16.2	-	1.255
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</b>		<b>546</b>	<b>1.821</b>

2017KO EKITALDIKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	ERANSKINA	BEHARGINTZA BASAURI-ETXEBARRI	BIDEBI BASAURI
Negozio zifraren zenbateko garbia .....		-	56
Hornikuntzak .....		(253)	(29)
Bestelako ustiaketa-sarrerak .....		106	159
Langileria-gastuak .....	A.16.1	(532)	(137)
Bestelako ustiapen gastuak .....		(135)	(49)
lbilgetuaren amortizazioa .....		(9)	(6)
lbilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egoztea eta beste .....		-	6
<b>USTIAPENAREN EMAITZA</b>		<b>(823)</b>	<b>-</b>
<b>EMAITZA FINANTZARIOA</b>		<b>-</b>	<b>-</b>
<b>EMAITZA ZERGA AURRETIK</b>		<b>(823)</b>	<b>-</b>
<b>ZERGAK</b>		<b>-</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIKO EMAITZA</b>		<b>(823)</b>	<b>-</b>



## ERANSKINAK

### A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA ETA EZARGARRIA ZAION ARAUDIA

Basauriko Udala administrazioko toki erakundea da, oinarrizko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak eta apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, arautzen dutena.

Lege horrek, II. Tituluan III. Kapituluari, udalerriek dituzten eskumenak eta ematen dituzten zerbitzu publikoak zehazten ditu, besteak beste: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, hiri-garraio kolektiboa, suteak itzaltzea, ura hornitzea, saneamendu-sarea, argiteria publikoa, hirigintzako diziplina eta kultur- eta kirol-jarduerak.

Zerbitzuak zuzenean eman ditzake bai toki-erakundeak berak, bai toki erakunde autonomoek, tokiko enpresa erakunde publikoek edo berak sortutako tokiko merkataritzako sozietate publikoek eta zeharka, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontraturako kontratazio publikoari buruzko legedian aurreikusitako molde ugariak baliatuta. Gainera, toki erakundeak bere eskumeneko zerbitzuak eman ditzake bera partaide den mankomunitate eta partzuergoen bidez.

Ekitaldian zehar ezargarria den araudi nagusia honako hau da:

- 10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
- 9/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa, Toki Ogasunei buruzkoa.
- 139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koa, Bizkaiko toki erakundeen kontularitzako esparru arautzailea onesten duena.
- 2017ko ekitaldiko Aurrekontua Egikaritzeko Udal Araua.



## A.2 AURREKONTUA ETA AURREKONTUKO ALDAKETAK

2017ko ekitaldirako aurrekontua 2017ko urtarrilaren 26ko Udaltzako onetsi zuen hasiera batean. Jendaurrean azaltzeko epea igaro ostean eta alegazioak ebatzi ondoren, Udaltzako behin betiko onartu zuen eta 2017ko apirilaren 12ko BAOn eman zen argitara.

### AURREKONTUKO ALDAKETAK

Hona hemen Udalak 2017ko ekitaldian egindako aurrekontuko aldaketen xehakapena kapituluka:

KAPITULUAK	Euroak milakotan						
	KREDITU TXERTAK.	KREDITU GEHIGAR.	KREDITU GAIKUNTZ.	BAJAK BALIOGAB.	TRANSFERENTZIAK		ALDAK. GUZT.
					NEG.	POS.	
1. Langileria-gastuak.....	479	50	511	(50)	(29)	29	990
2. Ondasun arrun. eta zerbitz. kontrat. ....	-	58	154	(7)	(200)	-	5
3. Gastu finantzarioak.....	-	-	-	(42)	-	-	(42)
4. Transf. arruntak .....	-	-	487	-	(55)	148	580
6. Inbertsio errealak .....	1.888	263	465	(110)	-	107	2.613
<b>UDALAREN GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>2.367</b>	<b>371</b>	<b>1.617</b>	<b>(209)</b>	<b>(284)</b>	<b>284</b>	<b>4.146</b>
3. Tasak eta bestelako sarrerak .....	-	-	117	-	-	-	117
4. Transferentzia arruntak .....	-	-	1.043	-	-	-	1.043
6. Inbertsioen besterentzea .....	-	-	205	-	-	-	205
7. Kapitaleko transferentziak.....	-	-	252	-	-	-	252
8. Aktibo finantzarioak .....	2.367	162	-	-	-	-	2.529
<b>UDALAREN SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>2.367</b>	<b>162</b>	<b>1.617</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>4.146</b>

Aurrekontuko aldaketek % 9,16ko igoera eragin dute. Aurrekontuko aldaketa esanguratsuenak, 2,4 milioi eurorena, finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikin bidez finantzatutako kreditu-txertaketak eragindakoa da.

2017ko ekitaldiko Aurrekontuen likidazioa 2018ko otsailaren 21ean onartu zen Alkatetzaren Dekretu bitartez.. Kontu Orokorraren aldeko txostena jaulki zuen Kontuen Batzorde Bereziak. Jendaurrean aurkezteko aldia amaitu ostean, erreklamaziorik batere jaso gabe, Udaltzako 2018ko ekainaren 28an onartu zuen.



### A.3 ZERGA, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen 2017ko ekitaldian zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarreren kontzeptuan kitaturiko eskubideen xehakapena:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	ESKUBIDE KITATUAK
Ondasun higiezinaren gaineko zerga (OHZ).....	6.573
Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ) .....	1.898
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (JEZ) .....	3.404
Hiri izaerako lursailen balioaren igoeraren gaineko zerga (HILBIZ) .....	531
<b>ZERGA ZUZENAK GUZTIRA</b>	<b>12.406</b>
Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga (EIOZ).....	908
<b>ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA</b>	<b>908</b>
Zabor-bilketa eta Hiri Hondakin Solidoak.....	1.736
Estolderia.....	261
Ur-hornidura.....	1.827
Hornidura-enpresen okupazio-tasa.....	995
Okupazio-tasa, lokaletarako sarbidea .....	314
Obra eta azaleraren okupazio-tasa .....	157
Telefoniako operadoreen konpentsazioa .....	172
Elkarlotutako irekierak egiaztatze-tasa .....	113
Etkez etxeko laguntza .....	178
Hirigintzako lizentziak .....	384
Trafikoko arau-hausteengatiko isunak .....	344
Betearazte subsidiarioen aginduak .....	92
Beste sarrera batzuk (< 90 mila euro) .....	692
<b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>7.265</b>
<b>1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA</b>	<b>20.579</b>

Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoak ura hornitzeko tasak kudeatzen ditu Udala BBUPera atxikiz geroztik, 1966ko azaroaren 22ko Udalbatzak onartu zuena. Gainera, Udalbatzak aitortutako eskuordearen indarrez zabor-bilketa eta estolderia-tasak ere likidatu eta kobratzen ditu, bai borondatezko aldian, bai betearazte-bidean ere.



#### A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRU-LAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

2017ko ekitaldian transferentzia eta diru-laguntza arrunt eta kapitalekoen kontzeptuan kitatutako eskubideak honako hauek izan dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ARRUNTAK	KAPITAL.
<b>ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRARENAK</b>	<b>43</b>	<b>-</b>
Itunpekoak ez diren zergetan partaidetza .....	42	-
Hautesle-errola gaurkotzea .....	1	-
<b>EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORRARENAK</b>	<b>1.855</b>	<b>199</b>
Lanbide-hastapeneko zentroa .....	612	-
Udalaren jabetzako ikastetxeetan lanak (ikus A.9) .....	-	151
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak .....	549	-
Lanbide, enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2016-2017-2018.....	511	-
Beste batzuk .....	183	48
<b>BIZKAIKO FORU ALDUNDIARENAK</b>	<b>25.582</b>	<b>154</b>
Itunpeko zergak - Udalkutxa .....	24.701	-
Gizartekutxa .....	604	-
Gizarte Zerbitzuen Karteraren aparteko funtsa 2017 .....	214	-
5. edukiontzia ezartzea .....	-	80
Beste batzuk .....	63	74
<b>UDALA GUZTIRA</b>	<b>27.480</b>	<b>353</b>

Udalek zerga itunduen diru-bilketan esku hartzen dute (Udalkutxa). BFAk behin betiko diru-bilketaren konturako entregak egiten ditu eta hurrengo ekitaldiko otsailean likidatzen du. Udalak 2017an kontabilizatutako zenbatekoa bat dator ekitaldiko konturako entregekin, 24,3 milioi euro, gehi 381.902 euro 2017ko likidazio positiboaren kontzeptuan.

Autonomia Erkidegoaren Administrazio orokorrak hasiera batean 2017an Basauriko Udalari egindako ekarpena gizarte larrialdietarako laguntzetarako 486.420 euro da, gehi 62.952 euro, Eusko Jaurlaritzak 2016ko ekitaldiari dagokionez osatutako kopuruarenak. Alabaina, udalerrian egindako gastuak Udalari esleitu zaion diru-sarrera gainditzen duenean eta udalek erabakitzen dutenean hasierako diru-izendapenak baliabide propioekin osatzea, Eusko Jaurlaritzak hasierako diru-izendapena gehienera % 30era arte hartuko du bere gain. Basauriko Udalean inguruabar horiek gertatzen direnez gero, Eusko Jaurlaritzak 2018an 145.926 euroren zenbateko osagarria eskualdatu dio Udalari.



Hona hemen 2017ko abenduaren 31n Eraginpeko finantzaketa duten gastuetarako geldikina osatzen duten finantzaketako desbideratze positiboen xehapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan				
	SARRERAK		GASTUAK		DESBIDERATZEA
	LEHENAG.	2017	LEHENAG.	2017	
BFaren d-lag. Artunduaga eta La Baskonia arteko zubiet. ....	4.750	-	2.956	67	1.727
Hirigintza izaerako sarrerak, atxikitze zain .....	-	1.707	-	461	1.246
San Miguel Mendebaldeko BOE orubearen salm. (ikus A.5) .	-	1.455	-	-	
Beste batzuk .....	-	37	-	-	
San Miguel Mendebaldeko hirigintz. kargak (4. ordainketa).	-	-	-	345	
Bilbondon lokalaren salmenta (ikus A.5).....	-	215	-	-	
Eraikinetako trabak kentzea.....	-	-	-	94	
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak .....	-	-	-	22	
LANBIDE enplegu plana 2017 .....	-	561	-	23	538
Beste batzuk (<60 M).....	-	-	-	-	125
<b>GUZTIRA</b>				<b>3.636</b>	

## A.5 INBERTSIO ERREALEN BESTERENTZEA

Hona hemen Udalak 2017an aitortutako sarreren xehapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ESKUBIDE	KITATUAK
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak besterentzea .....	215	
Hirigintzako aprobetxamenduak .....	1.455	
Beste batzuk .....	37	
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.707</b>	

Udalak “Eraikinen eta beste eraikuntza batzuen besterentzea” kontzeptuan 215.000 euro erregistratu ditu, Bilbondon zegoen merkataritza-areto bat enkante publiko bidez besterentzetik eratorritakoa. Areto horren kontularitzako balio garbia, Udalaren ibilgetuan erregistratutakoa, 55.169 euro izan zen; honenbestez, eragiketa horretatik eskuratutako mozkinak 159.831 euro izan da.

“Hirigintzako aprobetxamenduak” kontzeptuak 1,4 milioi euro jasotzen ditu, Basauriko Udaleko HAPOren San Miguel Mendebaldeko SR1 Sektorean lursail bat besterentzeari eta gerora gehienera bertan 61 etxebizitza, garaje eta trasteleku BOEren sustapen pribatuko erregimenean eraikitzeari dagozkionak. Aipatutako eragiketa administrazioko kontratu berezi baten bidez egiten da, SPKLTBren 19.1 b) artikulua oinarri hartuta. Honela, bada, eragiketa honen ondorioz baja eman da “Lurraren Ondare Publikoa” Balantzearen kontuan, 1,4 milioi euroren erregistraturiko balioarekin eta 46.367 euroren ondare-galera eragin du (ikus A.9).

## A.6 LANGILERIA-GASTUAK

Hona hemen kapitulu honen xehakapena Udalaren 2017ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari, LZn jasotako lanpostu kopuruari eta 2017ko abenduaren 31ko plantillari dagokionez:

KONTZEPTUA	Obligazio aitortuak	Euroak milakotan	
		LZ	Lanpostu kop. Plantilla 2017.12.31n
Goi kargudunen ordainsariak .....	381	-	6
Behin-behineko langileen ordainsariak .....	73	3	2
Funtzionarioen oinarrizko ordainsariak .....	3.246	268	217
Funtzionarioen ordainsari osagarriak .....	5.820	-	-
Lan kontratupeko langileen ordainsariak .....	31	-	1
Enplegu planetako langileen ordainsariak .....	366	-	16
Produktibitate-osagarriak eta hobekuntzak .....	255		
Gizarte Segurantzza .....	2.517		
Elkarkidetza eta pentsioen sistema osagarriari ekarpenak .....	235		
Aldez aurreko erretiroengatiko kalte-ordainak .....	299		
Gizarte zerbitzuak .....	216		
<b>GUZTIRA</b>	<b>13.439</b>	<b>271</b>	<b>242</b>

### Ordainsariak

Administrazioko langileei 2017ko ekitaldian ordaindutako ordainsariak % 1eko igoera izan dute 2016ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, ekainaren 27ko 3/2017 Legean xedatutakoari jarraikiz, 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoan.

Produktibitate-osagarriaren eta hobekuntzaren kontzeptuaren baitan jasotzen dira bai maila jasoagoko egitekoak betetzeagatik ordainsariak bai zaintza-taldeko zerbitzua emateagatikoak ere.

### EPE

Alkateak 2017ko azaroaren 7ko dekretu bitartez, 2017ko ekitaldiari dagokion EPEa onartu du, 8 lanpostu hutsena; horietatik 6 sarbide librekoak dira eta 2, barne sustapenekoak. Sarbide librekoen hautaketa-prozesuari ez zaio 2018ko ekitaldian abiarazi, udaltzaingoaren 2 lanposturi dagozkionei izan ezik, Poliziaren Euskal Akademiak eta Larrialdiak atalak kudeatutakoak, bi aldeen artean 2017an izenpetutako kudeatzeko gomendio baten indarrez.





## Altak eta bajak

Udalean ekitaldian izan diren alta eta bajen xehapena honakoa da:

	Kopurua	
	ALTAK	BAJAK
Udalkideak .....	1	-
Funtzionarioak		
Funtzionario titularra .....	-	9
Plaza hutsaren gaineko bitartekoa .....	7	1
Ordezkapenatarako bitartekoa (gaixoaldia, lizentzia, baimenak, oporrak) .....	15	14
programetako bitartekoa .....	-	1
Enplegu planetako bitartekoa .....	42	46
<b>GUZTIRA</b>	<b>65</b>	<b>71</b>

2017ko ekitaldian Udaleko 6 funtzionario behin betiko baja izan dira erretiroagatik eta guztira 299.418 euro jaso dituzte erretiro aurreratuagatik kalte-ordain kontzeptuan.



## A.7 ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Kapitulu honetan erregistratzen dira ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioari dagozkion gastuak. 2017an kontabilizatu diren kontzeptu esanguratsuenak hauek izan dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	OBLIGAZIO AITORTUAK	
Errentamenduak .....	130	
Azpiegitura eta ondasun naturalen zaintza .....	444	
Eraikinen eta bestelako eraikuntzen mantentze-lana .....	230	
Makineria, instalak. eta tresneria .....	285	
Beste konponketa batzuk.....	173	
Informazio-prozesuen mantentze-ekipoak .....	171	
Hornidurak .....	2.600	
Hornidura elektrikoa .....	875	
Ur hornidura .....	1.351	
Gasa .....	253	
Bestelako hornigaiak.....	121	
Komunikazioak .....	271	
Telefono-zerbitzua .....	171	
Posta bidezkoak .....	100	
Hainbat gastu .....	535	
Publizitatea eta propaganda .....	148	
Hainbat kanpaina .....	152	
Gainerakoa.....	235	
Kanpoko enpresek egindako lanak .....	14.922	
Hiri garbiketa .....	4.451	
Etxez etxeko laguntza .....	1.979	
Udal eraikinen garbiketa .....	2.227	
Hondakin solidoak tratatzea .....	1.151	
Lorategien mantentze-lana .....	840	
Lanbide-hastapeneko zentroaren kudeaketa .....	607	
Garabi eta ibilgailuak jasotzeko zerbitzua.....	148	
Zirt-Zart programa .....	165	
Udalekuak programaren kudeaketa-haurren udalekuak 2017 .....	205	
Dantzatzekoak.....	116	
Azterketak eta lan teknikoak .....	151	
Suteak itzaltzeko tasa BFA .....	340	
Familia eta haurtzaroari arreta .....	456	
Erlaxazio tailerrak, ioga .....	206	
Musika Eskolaren kudeaketa.....	245	
San Miguel auzoaren eta metroko geltokiaren arteko garraio zerbitzua .....	398	
Gainerakoa.....	1.237	
Zerbitzu arrazoiengatikoko kalte-ordainak .....	157	
Gainerakoa .....	131	
<b>GUZTIRA</b>	<b>20.049</b>	



## A.8 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK

2017ko ekitaldian, Udalak emandako transferentzia eta diru-laguntza korrante eta kapitalekoek eragindako obligazioak erregistratu ditu; hona hemen xehakapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ARRUNTAK	KAPITALEK.
<b>TRANSFERENTZIAK</b>	<b>6.652</b>	-
Kirolaren Udal Erakundea erakunde autonomoa .....	926	-
Kultur Etxea erakunde autonomoa.....	2.587	-
Basauriko Udal Euskaltegia erakunde autonomoa .....	822	-
Etxe Maitia zaharren egoitza erakunde autonomoa.....	1.285	-
Behargintza Basauri-Etxebarril, SL.....	722	-
Bidebi Basauri, SL. (Ikus A.16.2) .....	160	-
Bestelako txikiagoak (60 mila eurotik beherakoak) .....	150	-
<b>IZENDUNAK</b>	<b>851</b>	-
Ameba kultur elkartearen Euskarazko argitalpenei eustea .....	75	-
Herriko Taldeak. Auzoetako jaiak .....	(*) 288	-
Mikelats San Migeleko Elkartearen Ospakizunak .....	(*) 104	-
Euska Funtzari ekarpena Garapenerako kooperazioa.....	58	-
Sustraiak Kultur Elkartearen Euskal kulturaren sustapena .....	51	-
Gainerakoak (50 mila eurotik beherakoak).....	275	-
<b>LEHIA</b>	<b>1.542</b>	<b>209</b>
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak .....	(*) 858	-
Garapenerako laguntza-proiektuak hego aldean .....	(*) 139	-
Kirola sustatzeko unean uneko jarduerak .....	(*) 105	-
Izaera egonkorreko jarduerak Kirol taldeak .....	(*) 270	-
Igogailuak jartzea eta eraikinak zaharberritzea .....	-	(*) 185
Bestelako txikiagoak (50 mila eurotik beherakoak) .....	170	24
<b>BESTERIK</b>	<b>96</b>	-
Alderdi politikoei ekarpenak.....	(*) 58	-
Bestelako txikiagoak (50 mila eurotik beherakoak) .....	38	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>9.141</b>	<b>209</b>

(\*) Jasotako transferentzia eta diru-laguntzak

Udalak Bidebi Basauri SL sozietateari funtzionamendu gastuak finantzatzeko eskualdatutako 160.000 euroren zenbatekotik, 145.900 euro baizik ez dira behar izan. Gainerako diru-kopurua, 14.100 euro, Bidebi Basauri SLren Egoeraren balantzeko pasiboko kontu batean dago 2017ko abenduaren 31n (ikus A.16.2), lehenagoko urteetatik eratorritako beste saldo batzuekin batera, guztira 221.018 euro egiten dituztenak.



## A.9 IBILGETUA, INBERTSIO HIGIEZINAK ETA LURRAREN ONDARE PUBLIKOA

Hona hemen Udalaren Egoeraren Balantzeko ibilgetuko kontuek 2017an izan dituzten eragiketak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan				
	SALDOA 17.1.1	AURREK. ALTAK	AMORT.	BESTELAKOAK MUGIM.	SALDOA 17.12.31
<b>IBILGETU UKIEZINA</b>	<b>489</b>	<b>91</b>	<b>(105)</b>	<b>10</b>	<b>485</b>
<b>IBILGETU MATERIALA</b>	<b>106.777</b>	<b>1.244</b>	<b>(3.065)</b>	<b>(569)</b>	<b>104.387</b>
Lursailak eta ondare naturalak .....	29.250	-	-	(394)	28.856
Eraikuntzak.....	26.835	543	-	(84)	27.294
Azpiegiturak .....	55.220	135	-	94	55.449
Ondare historikoko ondasunak .....	1.046	-	-	-	1.046
Tresneria, lanabesak eta bestel. instalazioak.....	11.408	91	-	(2)	11.497
Altzariak eta bulegoko ekipoak.....	2.171	35	-	-	2.206
Informazio prozesuetarako ekipoak.....	2.476	106	-	-	2.582
Bestelako ibilgetu materiala .....	808	-	-	-	808
Pilatutako amortizazioa.....	(22.652)	-	(3.065)	136	(25.581)
Abian dauden eraikuntzak eta azpiegiturak .....	215	334	-	(319)	230
<b>IBILGETUKO INBERTSIOAK</b>	<b>5.059</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>(108)</b>	<b>4.951</b>
<b>LURRAREN ONDARE PUBLIKOA</b>	<b>6.909</b>	<b>346</b>	<b>(28)</b>	<b>(1.459)</b>	<b>5.768</b>
Lursailak (Ikus A.5).....	5.672	-	-	(1.459)	4.213
Eraikuntzak.....	1.437	-	-	-	1.437
Lursailak egokitzea (A.16.2).....	345	346	-	-	691
Pilatutako amortizazioa.....	(545)	-	(28)	-	(573)
<b>GUZTIRA</b>	<b>119.234</b>	<b>1.681</b>	<b>(3.198)</b>	<b>(2.126)</b>	<b>115.591</b>
Aurrekontuen kontabilitatean islarik gabeko altak		(544)			
Aurrekontuen kontabilitateko gastuak, ondarean aktibatutako gabeak		293			
<b>6. KAPITULUKO GASTUA, AURREKONTUKO KONTABILITATEA</b>		<b>1.430</b>			

Aurrekontuaren kontabilitatean islarik ez duten altetan 504.831 euro barne hartu dira, hirugarren batek Udalari egindako areto batzuen lagapenari dagozkionak hirigintzako Hitzarmena betez, 2007ko azaroaren 30ean aldean artean izenpetu eta 2010ean aldarazi zena; lagapena egin da Arizgoitiko Plazan etxebizitza-sail bat egikaritzean sortutako aprobetxamenduaren igoera berdintzeko.

Aurrekontuaren kontabilitateko 6. kapituluan erregistratutako gastuak, 293.374 euroren zenbatekoan, udalerriko ikastegietan egindako obrei dagozkie, zati batean Eusko Jaurlaritzak diruz lagundu dituenak (151.230 euro. Ikus A.4). Udalak gastu hauek Galera eta Irabazien kontuko “Konponketak eta zaintza” kontuan erregistratu ditu.



## A.10 EPE LUZERA KOB RATZ EKO ZORRAK

Kontu honen xehakapena honako hau da:

	Euroak milakotan
Bilbao Ría 2000 SAri epe luzeko aurrerakinak.....	3.098
Epe luzeko kredituak Udaleko langileentzat .....	53
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.151</b>

“Bilbao Ría 2000 SAri epe luzeko aurrerakinak” kontuak aurreko ekitaldietan Sozietateari ordaindutako kopuruak jasotzen ditu, Pozokoetxe, Bidebieta eta Lapatzaren hirigintzako garapenerako 2007ko abenduaren 21ean Basauriko Udalaren, ADIFen eta Bilbao Ría 2000 SAren artean izenpetutako lankidetza-hitzarmenaren bideragarritasun finantzarioa bermatzeko. Udalak aurrekontuko gastuen 8. kapituluan kontabilizatu ditu kontura egindako ordainketa hauek guztiak. Alabaina, Bilbao Ría 2000 SAk erreklamaturako ordainketa bat osotasunean ordaindu ez izanaren ondorioz, Sozietateak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu zuen eta horren gaineko epaiari, 2016an ebatzi eta Udalaren aurkako suertatu zenari, apelazioko errekurtsoa jarri zitzaion EHJANren aurrean eta ondoren, kasazio-errekurtsoa Auzitegi Gorenaren aurrean, zeinak 2017ko azaroaren 23ko Auto bitartez, errekurtsoa onartu ez eta epaia irmo bilakatu zuen.

Udalak 2018ko otsailaren 22an Udalbatzak San Fausto, Bidebieta eta Pozokoetxeko eremuaren Hiri Erreformatarako Plan Berezia onartu zuen; ordea, ez da aurreikusten eremuaren kudeaketa aurrez aipatutako lankidetza hitzarmenean jasotako parametroen arabera egitea; Udalak, baina, akordioa adostasunez suntsiarazteko asmoa erakutsi du. Bada, 2018ko abenduaren 10ean alde biek akordioa Suntsiarazteko Erabakia izenpetu zuten eta, besteak beste, dio Udalak Bilbao Ría 2000 SAri zor dion kopurua 1,3 milioi euro dela, Sozietateak egin eta Udalari fakturatu gabeko gastuengatik; zorrak kalte-ordain izaera du.



## A.11 PASIBO FINANTZARIOAK

Honekin baterako taulan zehazten da, erakunde mailegu-emaleen arabera, Udalak 2017ko abenduaren 31n zuen zorra, mailegutik ordaintzeko dagoen printzipala eta amortizazio-baldintzak:

BANKUA	EMANDAKO KOPURUA	%	MUGAEGUNAK URTE KOP. AZKENA	Euroak milakotan			
				ZORRA 16.12.31	BERRIAK	AMORTIZ. 17.12.31	ZORRA 17.12.31
BBK .....	1.750	euribor+0,10	12 eka.2017	87	-	87	-
Banco Santander.....	2.150	euribor+0,94	12 eka 2022	1.182	-	215	967
Nafarroako Rural Kutxa.....	2.150	euribor+0,94	12 eka 2022	1.183	-	215	968
Kutxabank .....	4.000	euribor+4,50	12 urr 2024	3.200	-	400	2.800
<b>FINANTZA-ERAKUNDEEN ZORRA GUZTIRA</b>				<b>5.652</b>	<b>-</b>	<b>917</b>	<b>4.735</b>
Balantzean epe luzeko zorra				<b>4.735</b>			<b>3.905</b>
Balantzean epe laburreko zorra				<b>917</b>			<b>830</b>

Udalak aurreko maileguen finantzaketa-kostua atxikitako likidazioko “Gastu finantzarioak” kapituluaren erregistratu du, 92.264 euroan.

## A.12 AURREKONTUKO ZORDUNAK

Hona hemen 2017ko abenduaren 31n kobratzeko dauden Udalak erregistraturiko aurrekontuko eskubideen osaera eta antzinatasunaren xehakapena kapituluka:

KAPITULUAK	Euroak milakotan			
	2015 eta lehen.	2016	2017	GUZTIRA
Zerga zuzenak.....	933	271	526	1.730
Zeharkako zergak.....	94	1	214	309
Tasak eta bestelako sarrerak.....	397	80	1.521	1.998
Transferentzia arruntak .....	300	239	712	1.251
Ondare-sarrerak .....	-	-	1	1
Inbertsio errealeen besterentzea.....	-	-	3	3
Kapital transferentziak .....	-	-	115	115
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.724</b>	<b>591</b>	<b>3.092</b>	<b>5.407</b>

Udalak 2017ko ekitaldi itxieran, Diruzaintza Geldikinetik 2,1 milioi euro kendu ditu kaudimen-gabeziarako zuzkidura kontzeptuan; horiek, batetik, 24 hilabetetik gorako antzinatasuna duten saldo guztiei dagozkie, eta, bestetik, indarreko ekitaldikoak izanik betearazte bidean dauden zerga izaeradun kobratzeko saldoen % 25i eta 2016ko ekitaldiko % 75i.

Transferentzia arrunten kapitulari dagokion kobratzeko dagoen zenbatekoak 300.000 euro barne hartzen ditu, gizarteratzeko eta lan munduan sartzeko tokiko plan bat mamitu eta garatzeko 2009an EJK emandako diru-laguntza batenak. Udalak laguntza hori diru-laguntzan aurreikusi gabeko helburu baterako baliatu zuenez gero, gaur egun oraindik



kobratzeko dago. Kontu-sail honek duen antzintasuna aintzat hartuta, oso-osorik zuzkitua dago.

### A.13 AURREKONTUZ KANPOKO ERAGIKETAK

Hona hemen Udalean aurrekontuan ez sarrera ez gasturik eragiten ez duten eragiketengatik kobratu eta ordaindu beharreko kontuen xehakapena 2017ko abenduaren 31n:

	Euroak milakotan
<b>ZORDUNAK</b>	<b>52</b>
BEZarengatiko zordunak .....	52
<b>APLIKATZEKO DAUDEN ORDAINKETAK</b>	<b>80</b>
<b>HARTZEKODUNAK</b>	<b>1.314</b>
Ogasun publikoa, BEZagatik hartzekodun .....	315
BEZarengatiko hartzekodunak.....	68
Epe laburrera jasotako gordailuak .....	190
Nominako atxikipenak NUIZen .....	540
Eskudirutan jasotako bermeak .....	120
Gizarte Segurantzako enpresa kuota.....	41
Bestelako hartzekodunak .....	40
<b>APLIKATZEKO DAUDEN SARRERAK</b>	<b>5</b>
<b>SALDO GARBI HARTZEKODUNA</b>	<b>1.187</b>

Udalak ez du aurrekontuaren likidazioko aurrekontuz kanpoko kontuetan barne hartzen “Kitatzeko dauden sarreraren kontzeptuko ente publikoak” kontuaren saldo hartzekoduna, nahiz 2017ko abenduaren 31n Diruzaintzako Geldikina kalkulatzekoan aintzat hartzen duen; saldoa JEZen foru-gainkarguari dagokio eta 137.827 euro egiten ditu, Udalak bildu eta BFAri eskualdatu behar diona.

### A.14 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

19 espedienteko lagin baten bitartez kontratu mota bakoitzari ezargarriak zaizkion legezko prozedurak aztertu ditugu: horietako 12 ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuei eta inbertsioei dagozkienak, 2015-2017 aldian esleitutakoak; eta 7, lehenagoko ekitaldietakoak, baina 2017ko aurrekontuan jaso direnak.



## AZTERTUTAKO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan

KONTRATUA	ESLEIPENA			EGIKARITZEA 2017	AKATSAK
	Data	Moldea	Zenbat.		
<b>ZERBITZUAK</b>					
1. Udalekuak programaren kudeaketa .....	api-17	Irekia	(*) 205	205	A2
2. Posta zerbitzuak (2+2) .....	mar-17	Irekia	(*) 232	76	A2
3. Gazteentzako <i>Zirt-Zart</i> programa (2+2) .....	ots-17	Irekia	324	122	A1,2
4. Adinekoen aisialdirako tailerrak (2+2) .....	eka-16	Irekia	412	206	A1,2
5. Udal eraikinen barruko garbiketa (2+2) .....	aza-15	Irekia	4.454	2.227	A4
6. La Baskonia zubi. proi. idazk., obra-zuz., seg. eta osas. .	api-17	Irekia	147	67	A2
7. Etxerako laguntza (2017-19) (2+2) .....	mar-17	Irekia	(*) 4.100	1.346	A2
8. S.Migueldik metro-geltok bitart. bidaiarien garr. (1+1) ..	aza-16	PGPN	398	398	D
9. Telefono-zerbitzua (4+2) .....	mai-12	Irekia	(*) 857	178	
10. Familiak eta haurrak artatzeko programa (2+2) .....	aza-14	Irekia	881	457	
2017ko aldaketa .....			16		
11. Parkeak, lorat. eta guner berde publikoen mant. (2+2). Prezioak berrikustea .....	aza-13	Irekia	1.677	840	
2017ko aldaketa .....			2		
12. Lanbide-hastapeneko zentroaren kudeaketa (2+2) .....	uzt-14	Irekia	1.205	608	
2017ko aldaketa .....			17		
13. Musika Eskolaren kudeaketa (2+2) .....	eka-14	Irekia	489	245	
<b>HORNIDURAK</b>					
14. Energia elektrikoa Basauriko Udalarentzat (1+1) .....	aza-16	Irekia	(*) 1.165	841	A2,3 B1 C1
15. Gasa Basauriko Udalarentzat (1+1) .....	ots-17	Irekia	(*) 367	151	A2 B1
<b>ADMINISTRAZIOKO KONTRATU BEREZIAK</b>					
16. S. Miguel mendebaldeko sektoreko C lursaila .....	mar-16	Irekia	1.413	1.413	D
17. Hiri garbiketa, HHSen bilketa eta garraioa (8+2) .....	mai-10	Irekia	32.426	4.451	A5
Aurreko ekitaldietako aldatetako .....			292		
2017ko aldaketa .....			10		
Prezioak berrikustea .....			228		
18. Etxerako laguntza (2013-16) (2+2) .....	mar-13	Irekia	(*) 4.499	633	
<b>BESTERENTZEA</b>					
19. Lokala Bilbondon .....	ots-17	Enkantea	215	215	
<b>GUZTIRA</b>			<b>56.031</b>	<b>14.679</b>	

(\*) Aleko prezioetan esleitua Esleipen zenbatekoan gehieneko aurrekontua guztira adierazi dugu

Euroak milakotan

AKATSAK	ESLEIPENAREN ZENBATEKOA	
	ESPEDIENTE KOP.	
<b>A ESPEDIENTEA</b>		
1. Balorazio-irizpide orokorrak .....	2	736
2. Neurritz kanpoko eskaintzaren kalifikazio-muga okerra .....	8	6.952
3. Kostu ekonomikodun zerbitzu osagarriak, BABAn jaso gabeak .....	1	1.165
4. Ausarkeriaren atalasea oker finkatua .....	1	4.454
5. Kontratua oker sailkatua .....	1	32.426
<b>B ESLEIPENA</b>		
1. Eskaintzak balioztatze txosten teknikoaren arrazoitu gabe .....	2	1.532
<b>C EXEKUZIOA ETA HARRERA</b>		
1. Eskaini eta balioztatutako zerbitzu osagarriak, egikaritu gabe .....	1	1.165
<b>D BERARIAZKOAK</b>		
	2	1.811





## A.15 TOKI ERAKUNDE AUTONOMOAK

### A.15.1 LANGILERIA

Hona hemen Toki Erakunde Autonomo bakoitzaren 2017ko ekitaldian aitortutako obligazioen xehakapena, lanpostuen zerrendan barne hartutako lanpostu kopurua eta 2017ko abenduaren 31ko plantilla:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan											
	KUE			Egoitza			Euskaltegia			Kultur etxea		
	Obligz.	LZ	Langileria	Obligz.	LZ	Langileria	Obligz.	LZ	Langileria	Obligz.	LZ	Langileria
Lan kontr. fin.& muggab. ord. (*)	783	25	20	1.038	26	27	930	20	20	1.072	40	34
Aldi-baterako lan kontr. ord....	334		10	720		24	428		12	475		10
Gizarte kuotak .....	331		-	460		-	376		-	410		-
Elkarkidetza .....	24		-	18		-	23		-	25		-
Beste gizarte-gastu batzuk .....	18		-	14		-	27		-	31		-
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.490</b>	<b>25</b>	<b>30</b>	<b>2.250</b>	<b>26</b>	<b>51</b>	<b>1.784</b>	<b>20</b>	<b>32</b>	<b>2.013</b>	<b>40</b>	<b>44</b>

(\*) Egoitzak, Euskaltegiak eta Kirolaren Udal Elkarteak lan kontratu finkoko langileen ordainsarrietan beste langile-mota batzuenak ere jasotzen ditu, hala nola, mugagabeak, iraupen jakinekoak eta txandakakoak.

Erakunde autonomoen lanpostu guztiek lan-kontratuak dituzte. Honez guztiaz gain, Basauriko Udal Euskaltegia erakunde autonomoaren plantillan lan-kontratu mugagabea duten 3 langile daude, LZn ez, baina plantillan barne hartuak daudenak, izan ere, Gizarte Segurantzak 2010ean egindako ikuskapen batean beretu zuten izaera hori; Kultur Etxea erakunde autonomoan beste hiru langile mugagabe daude eta hauetatik 2k 2010ean beretu zuten mugagabe izaera eta hirugarrenak 2016an; azken honek, gainera, ez du LZko inongo plazarik betetzen.

Toki Erakunde Autonomo guztietako langileei ordaindutako ordainsariek % 1eko igoera izan dute 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, ekainaren 27ko 3/2017 Legean xedatutakoari jarraikiz, 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

2017ko ekitaldian erakunde autonomoen plantillek izan dituzten aldaketen xehakapena honako hau da:

KONTZEPTUA	Kopurua							
	KUE		EGOITZA		Euskaltegia		Kultur etxea	
	ALTAK	BAJAK	ALTAK	BAJAK	ALTAK	BAJAK	ALTAK	BAJAK
Lan kontratuko langile finkoak .....	-	-	-	1	-	-	-	-
Plazaren gaineko aldi bat. lan kontrat. ....	1	1	3	2	1	1	1	1
Aldi bat. lan-kontratud. ordezkapeneng..	10	11	351	352	5	4	34	31
Obra edo zerbitzu jakina .....	2	2	-	-	13	14	4	4
Produktzioaren inguruabarrengatik .....	2	2	11	10	2	1	-	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>15</b>	<b>16</b>	<b>365</b>	<b>365</b>	<b>21</b>	<b>20</b>	<b>39</b>	<b>36</b>

2017ko abenduaren 31n indarrean diraute obra edo zerbitzu jakinerako 3 lan-kontratuk, bata 2012an gauzatutako Basauriko Udal Euskaltegia erakunde autonomoan eta beste biek, Kirolaren Udal Erakunde erakunde autonomoan 2009az geroztik, udalaren zenbait plan garatzeko.



## A.15.2 KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAK

Erakunde autonomoek izapidetutako espediente esanguratsuenen lagin baten bitartez kontratu mota bakoitzari ezargarriak zaizkion legezko prozedurak aztertu ditugu: Hona hemen azaleratu diren ez-betetzeak:

KONTRATUA	ESLEIPENA		Euroak milakotan			
	Data:	Moldea	Zenbat.	EXEK. 2017	AKATSAK	
<b>UDALAREN KIROL ERAKUNDEA</b>						
1. Kirol jarduerak garatu eta emateko zerbitzuak (2+2) .....	eka-17	Irekia	(*) 502	102	A1	B1
2. Uretako jard. eta soz. egitekoak garatzeko zerbitzuak (2+2) .....	ira-14	Irekia	(*) 512	263		
<b>ZAHARREN UDAL EGOITZA</b>						
3. Elikagaien hornidura (1+1) .....	aza-16	Irekia	83	75	A2	
4. Gizarte-laguntza eta psikol., dinamiz. eta familiei laguntza (1+1).....	aza-16	Irekia	65	65	A1	
<b>KULTUR ETXEA</b>						
5. Akomodazio eta txarteldegi zerbitzuak (2+2) .....	ira-14	Irekia	185	89		
6. Udal ludoteken zerbitzuak (2+2).....	eka-14	Irekia	107	65		
<b>GUZTIRA</b>			<b>1.454</b>	<b>659</b>		

(\*) Aleko prezioetan edo sarreren gaineko %an esleitutako kontratua Esleipen zenbatekoan gehieneko aurrekontua guztira adierazi dugu

AKATSAK	ESLEIPENAREN	
	ESPEDIENTE KOP.	ZENBATEKOA
<b>A ESPEDIENTEA</b>		
1. Neurritz kanpoko eskaintzaren kalifikazio-muga okerra .....	2	567
2. Kaudimen tekniko eta ekonomiko gehiegizkoa.....	1	83
<b>B ESLEIPENA</b>		
1. BAOn publikotasuna eta ez EBAOn Europako zuzentarauaren transposizioagatik .....	1	502

Erakunde autonomoek 2017ko ekitaldian egindako gainerako gastuak aztertzean ikusi dugu kontratazioaren araudian honako ez-betetze edo akats egoerak azaleratu direla:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	2017ko gastua	Akatsa
<b>KULTUR ETXEA</b>		
Laguntza emateko teknikariak kontratatzea.....	35	A.1
Zinea proiektatzeko zerbitzua .....	40	A.1

A1: Kontratu txiki modura izapidetuak; zuzenagoa da, baina, gutxienez prozedura negoziatua baliatzea.

## A.16 SOZIETATE PUBLIKOAK

### A.16.1 LANGILERIA

2017ko abenduaren 31n langile- eta plantilla-gastuaren xehakapena honakoa da:

SOZIETATEA	ORDAINSARIA	Euroak milakotan		
		GIZARTE SEGURANTZA	GIZARTE GASTUAK	GUZTIRA
Behargintza Basauri-Etxebarril SL.....	387	119	26	532
Bidebi Basauri SL.....	115	20	2	137

SOZIETATEA	Plantilla 2017.12.31n			
	GOI ZUZENDAR.	FINKO MUGAGAB.	ALDI BATER.	GUZTIRA
Behargintza Basauri-Etxebarril SL.....	-	9	1	10
Bidebi Basauri SL.....	1	1	-	2
<b>GUZTIRA</b>	<b>1</b>	<b>10</b>	<b>1</b>	<b>12</b>

2017ko ekitaldian langileei ordaindutako ordainsariek % 1 egin dute gora 2016ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean. Alabaina, 2017ko ekainaren 8an Behargintza Basauri-Etxebarri SL sozietatearen Batzorde Nagusiak sozietateko koordinatzaile lanpostuaren ordainsari berriak onartu ditu, 2017ko uztailean eta 2018ko uztailean aplikatzekoak; ordainsari horiek 2017ko ekitaldian % 25,3 igo dira 2016ko aldean.

2017ko ekitaldian aldi baterako alta eman zaio langile bati Behargintza Basauri-Etxebarri SLn, zeinaren kontratazioa, 6 hilabeteko iraupenekoa, Lanbidek diruz lagundutako enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntza-planaren programaren baitan egin baita.

### A.16.2 BIDEBI BASAURI SL.

#### TALDEKO ENPRESETAKO ZORDUNAK EPE LABURRERA

2017an kontu honek izan duen mugimendua honako hau izan da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	SALDOA 16.12.31n	2017an EMANDAKOA	SARREREI EGOTZIA	SALDOA 17.12.31n
Diru-laguntza bihurturik diren epe lab. zorrak .....	207	160	(146)	221
Epe lab. zorrak taldeko enpr. ....	195	-	-	195
<b>GUZTIRA</b>	<b>402</b>	<b>160</b>	<b>(146)</b>	<b>416</b>

Bi kontuek Udalak Sozietateari emandako diru-laguntzak jasotzen dituzte. 2016an 195.003 euro jaso zituen finantzaketa osagarri modura, agindutako hirigintzako kudeaketan lanean jarraitu ahal izateko, etxebizitza babestuaren sustapena bideratzearen. 2017an Udalak 160.000 euro eman zituen Sozietatearen funtzionamenduko gastuak finantzatzeko (ikus A.8). Honela, bada, kontu honen saldoak jasotzen du Udalak emandako diru-laguntzen zenbatekoa, oraino defizita finantzatzeko erabili ez direnena.

## ALDIZKAKOTZEAK EPE LABURRERA

Kontu honen xehakapena honako hau da:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
San Miguel Mendebaldea kudeatzeko fakturatutako 4. derrama.....	1.398
San Miguel Mendebaldearen kudeaketan egindako gastuak .....	(27)
2017an jaulkitako frak, 2016an zorpetutako sarrerrenak.....	(116)
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.255</b>

2017ko abenduan Bidegi Basauri SLk SR-1 San Miguel Mendebaldea bizileku-sektoreko jabeei fakturatu die hirigintzako kargen kontura ordaindutako azken derrama. Guztizko 1,4 milioi euroren zenbatekotik 345.188 euro Udalarenak dira (ikus A.9).

## A.17 KONTU BATERATUAK

Hona hemen Kontu Orokorrean barne hartu diren kontu bateratuak, Tokiko Sektore Publikoari buruzko informazio modura:

EGOERAREN BALANTZEA 2017 ETA 2016-KO ABENDUAREN 31-N				Euroak milakotan	
AKTIBOA	2017	2016	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2017	2016
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>146.675</b>	<b>151.157</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>147.044</b>	<b>146.111</b>
Ibilgetu ez-materiala .....	490	494	Ondarea .....	36.427	36.427
Ibilgetu materiala .....	131.869	135.167	Sortutako ondarea .....	110.010	109.240
Ibilgetuko inbertsioak.....	4.951	5.058	Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	108.922	112.499
Lurraren ondare publikoa.....	5.768	6.909	Konsolidat. sozietateetan erreser. ....	235	219
Epe luz. finantza inbertsioak .....	438	390	Ekitaldiko emaitza.....	853	(3.478)
Epe luzera kobratzeko zordunak .....	3.159	3.139	Jasot. diru-lag., emaitz. egozt. daudenak ...	607	444
			<b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b>	<b>5.633</b>	<b>6.529</b>
			Epe luzeko zorrak .....	3.905	4.735
			Hartzekod. eta ordaintz. bst kontu batz. ....	1.728	1.794
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>12.973</b>	<b>10.186</b>	<b>PASIBO ARRUNTA</b>	<b>6.971</b>	<b>8.703</b>
E/lab. kobratzeko zordunak.....	3.766	3.008	Zorrak epe laburrera .....	1.541	1.673
Epe lab. finantza inbertsioak .....	87	87	Hartzekod. eta ordaintz. bst kontu batz. ....	5.430	7.030
Eskud. eta bst. akt. lik. baliok.....	9.120	7.091			
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>159.648</b>	<b>161.343</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>159.648</b>	<b>161.343</b>



ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA 2017 ETA 2016	Euroak milakotan	
	2017	2016
Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak .....	22.920	21.454
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak .....	29.060	26.051
Kudeaketa arrunteko beste sarrera batzuk .....	986	364
<b>KUDEAK. ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>52.966</b>	<b>47.869</b>
Langileria-gastuak .....	(21.166)	(20.988)
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak.....	(3.587)	(3.634)
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk.....	(22.662)	(22.529)
Ibilgetua amortizatzea .....	(4.201)	(4.430)
<b>KUDEAK. ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>(51.616)</b>	<b>(51.581)</b>
<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA</b>	<b>1.350</b>	<b>(3.712)</b>
<b>IBILGETU EZ FINANTZARIOAREN ETA BESTE KONTU BATZUEN EMAITZAK</b>	<b>(450)</b>	<b>304</b>
<b>ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>900</b>	<b>(3.408)</b>
<b>ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>(47)</b>	<b>(70)</b>
<b>EKITALDIKO EMAITZA</b>	<b>853</b>	<b>(3.478)</b>





Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ALEGAZIOAK

Udalak egin nahi dituen alegazioak txostenaren ondorio batzuei baizik ez dagozkie. Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jarraibideekin bat etorriz, aurkeztutako alegazio bakoitzean men egiten zaio txostenaren epigrafeari:

### IRITZIARI BURUZKO II. ATALARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

1. alegazioa, legezketasuna betetzeari buruzko iritziaren 1. paragrafoari dagokiona.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 9. artikulua 5. apartatua zehaztu da langilea kaleratzeagatiko edo lanpostua uzteazteagatiko kalte-ordainak salbuetsirik egongo direla; era berean, zenbaki horretan xedatutako ondorioetarako, ezarri da irazpen kolektiboak eta arrazoi objektiboengatiko irazpenak edo lanpostu-uzteak parekatuko zaizkiela Langileen Estatutuaren 51. artikuluan ezarritako arrazoietan oinarritutako administrazio publikoen giza baliabideen plan estrategikoei.

Administrazio publikoen giza baliabideen plan estrategikoez denaz bezainbatean, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzazko Errege Dekretu bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 69. artikulua aplikatu beharra dago; ezarpen horretan jaso da administrazio publikoek giza baliabideak antolatzeko planak onartu ahalko dituztela.

Zentzu horretan, testu bategin horren azken xedapenetatik laugarrenean eta Funtzio Publikoa Erreformatzeko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen 18. artikuluan eta 21. xedapen gehigarrian antzeko jardunbidea berretsi da.

Ondorio horietarako, uztailearen 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoarenak, bere 22. artikuluan honakoa ezarri du:

«Euskal Administrazio Publikoek giza baliabideak arrazionalizatzeko programak onar ditzakete, euren buruak antolatzeko duten gaitasunaren arabera eta langileen ordezkariekin negoziatu ostean. Programok euren berezitasunei egokituko zaizkie, eta funtzionarioei zein lan kontratuko langileei buruzkoak izango dira, eta euren eraginpeko alorrean giza baliabideak ahalik ondoen erabiltzeko garatu behar diren jarduketak hartuko dituzte batera...

2. Giza baliabideak arrazionalizatzeko programetan, enplegu-planetarako aplikagarriak diren arau orokorretan ezarritako neurri guztiak edo batzuen batzuk sar daitezke. Horrez gain, borondatezko lan-utzialdian daudenentzat, aldeztatik jubilatuta daitezenentzat, jarduneko zerbitzu aldia uzten dutenentzat edo behin betiko baja hartzen dutenentzat pizgarriak ere sar daitezke...»

Era berean, aipatutako 6/1989 Legea Euskal Administrazio Publikoaren Funtzionarioen Lanpostuak Betetzeko Araudiak garatzen du; araudi hori urriaren 13ko 190/2004 Dekretu bidez onartu zen eta 41. artikuluan honakoa ezarri da:

«1. Euskal administrazio publikoek giza baliabideak arrazionalizatzeko programak onar ditzakete, beren buruak antolatzeko duten gaitasunaren arabera eta langileen ordezkariekin negoziatu ostean. Programok euren berezitasunei egokituko zaizkie, eta funtzionarioei zein lan-kontratuko langileei buruzkoak izango dira...

2. Zerbitzu publikoa eskaintzeko asmoz ezinbestekoak eta aproposak diren langileez osaturiko antolakuntza-administratibo egokia lortzeko, arrazionalizatzeko programek euren eraginpeko alorrean giza baliabideak ahalik eta ondoen erabiltzeko garatu behar diren jarduketak hartuko dituzte batera. Baliteke jarduketok eragina edo ondorioak izatea, besteak beste, honako gaitan: langileen plantillen tamaina eta beharizanen plangintza...»

Zentzu berean, arautegi horren 42. artikuluan gehitu da giza baliabideak arrazionalizatzeko programek euren baitan jaso ditzaketela jarraian aipatutako neurri hauetako batzuk edo horiek guztiak:

- Antolakuntza-egiturak nahiz lanpostuak aldatzeko aurreikuspenak.
- Borondatezko lan-utzialdia, aurreraturiko erretiroa, jarduneko zerbitzua uztea edo jarduneko zerbitzuan behin betiko baja hartzea sustatzeko pizgarriak...»

Aurreko guztiarekin bat etorriz, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2003 Foru Arauaren 9.5. artikuluan aipatutako administrazio publikoen giza baliabideen plan estrategikoak honela zehatz daitezke: pertsonala administrazioek izan ditzaketen premia zehatzen arabera arrazionalizatzeko eta egokitzeko programa gisa, auto-antolakuntzarako duten gaitasunari jarraituz eta pertsonalaren ordezkaritzarekin aldeztu aurretik negoziatuz, betiere baliabide egoki eta ezinbestekoen bidez zerbitzu publikoak emateko antolakuntza administratibo egokia lor dadin.

Plan horiek xede hori erdiesteko garatu beharreko jarduketak jaso behar dituzte. Zehatzago, enplegu planetarako aplikazio arautegi orokorrean ezarritako neurriez gain, plan horiek borondatezko eszedentziarako pizgarriak jaso ditzakete.

Hori dela eta, zerbitzuen efizientziaren hobekuntzari eta giza baliabideen erabileraren arrazionalizazioari erantzuna emango dien plantilla dimentsioa izateko, Basauriko Udalak, 2002ko uztailaren 30ean egindako osoko bilkuran, honakoa onartu zuen: Giza Baliabideen Plan Estrategikoa (BAO, 29. zk., 2003ko otsailaren 12koa), eta agiri horretan kalte-ordain bidezko erretiro aurreratuak arautzen ziren, bai eta udaltzaingoaren bigarren jarduera ere. Planaren helburua zen plantillaren gatzetzen dela bermatzea eta zerbitzu publikoak hobetzea (plan estrategikoaren 3. artikulua), auto-antolakuntzarako gaitasunaren arabera; izan ere, horrek zenbait neurri txertatzea ahalbidetzen zuen, hala nola borondatezko eszedentziarako eta erretiro aurreraturako pizgarriak.

Ondorioz, gure ustetan, Basauriko Udalaren Giza Baliabideen Plan Estrategikoan arautzen diren erretiro pizgarridunengatik kalte-ordainak PFEZFAren 9.5. artikuluan araututako salbuespenari lotzen zaizkio, enpleguaren erregulazio espedienteetan onartutakoak bezala.

Aurreko guztiaz gain, gehitu beharra dago Basauriko Udalak Giza Baliabideen Plan Estrategikoa onartu zuenetik Bizkaiko Foru Ogasunean aurkeztu dituela 190 eta 10T ereduak; horietan erretiro aurreratuengatik kalte-ordainen kopurua eta kalte-ordain





salbuetsiak jasotzen ziren eta Bizkaiko Foru Ogasunak ez zion Basauriko Udalari inolako ohar tarazpenik egin horren inguruan. Nolanahi ere, Foru Ogasunak zerga arautegia aplikatzeko beharrezko informazio fiskal guztia izan du lehenengo unetik, kalte-ordain horien pertsonal hartzaileari zerga arautegia aplikatzeko, betiere egokitzat jotzen zituen irizpideen arabera.

## 2. ALEGAZIOA, LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIAREN 2. PARAGRAFOARI DAGOKIONA

Behargintza Basauri-Etxebarri SL enpresaren Batzar Nagusiaren akordioaren xedea izan zen Basauriko Udalaren menpeko erakunde autonomo eta enpresa publikoetako koordinatzaile/zuzendari lanpostuaren ordainsarian zegoen diskriminazio bidegabeari amaiera ematea. Postu horiek eskumen, funtzio eta erantzukizun berberak zituzten, baina Basauri-Etxebarriko Behargintzaren koordinatzaileak ordainketa desberdintasun historikoa zuen lanpostu parekideekin alderatuta; ordainketaren aldetiko diskriminazio horrek ez zeukan azalpenik eta ordainketa erantzukizun eta berdintasunaren aldeko udal politikaren kontrakoa zen, eta ez zuen betetzen konstituzionalaren debekua, lan arautegian izan beharreko ez-diskriminaziori zegokionez.

Gure iritziz, aurreko ordainketa aldaketak arauzko ahalbidea du Estatuaren 2017ko Aurrekontu Orokorrei buruzko 3/2017 Legearen 18.7. artikuluan; ezarpen horrek honakoa adierazten du hitzez hitz: *Aurreko ataletan ezarritakoa ulertu behar da, betiere kalterik egin gabe lanpostuen edukiagatik, programa bakoitzerako esleitutako efektibo kopuruaren aldaketatik edo finkatutako helburuen lorpen mailagatik salbuespen gisa ezinbestekoak diren ordainketa egokitzapenei.*

## BARNE KONTROLERAKO ETA KUDEAKETA PROZEDURETARAKO SISTEMEN KONTSIDERAZIOEI BURUZKO III. ATALARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

### 3. alegazioa, pertsonalari buruzko III.1.3. puntuari dagokiona

Basauriko Udalaren eta erakunde autonomoen lanpostu zerrendetan hutsik dauden lanpostuak eta bitarteko edo aldi baterako pertsonalak betetako lanpostuak azaltzen dira; zerrenden egoera, beraz, neurri batean 2011ko ekitalditik 2018kora bitartean onartutako estatu aurrekontuen legeetan ezarritako mugen ondorioa da (gai honetan oinarritzko legeria baita). Lege horietan mugak ezarri zaizkie karrerako funtzionarioen sarrerari, behin-behineko pertsonalaren kontratazioari eta bitarteko funtzionarioen izendapenari, azken hori aparteko kasuetan baizik ez baita baimentzen eta betiere premiazko premia atzeraezinak betetzeko. Hortaz, aurrekontuan sartu ez izanak erantzuten dio lege horiek pertsonalaren arloko gastua murrizteko edo ez handitzeko ezarritako betebeharrari, ez plaza horiek ez-beharrezkoak eta amortizagarriak izateari. Izan ere, aurrekontuei buruzko legeek, 2011tik gaur egunera artekoek, erreposizio tasak malgutuz eta handituz joan dira. Horrek ahalbidetu du plazak estaltzea, printzipioz ezin estal zitezkeen arren; gainera, amortizatuak izan balira, berriro ere sortu beharko ziren eta ezingo zitzairen erantzun egoki eta arinik eman pertsonalaren premiei.

Zenbait ordainsari, dieta eta gasturen kontsiderazio fiskalari dagokionez, adierazi beharra dago azken bien kasuan langileei sorrarazitako gastuengatiko ordezkioak direla (aparteko orduak, lantokitik kanpoko joan-etorriak); horiek ezin har daitezke ordainsarizat eta, gainera, gizarte hobekuntzen kasuan, gure ustetan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren 2010/05/19ko ebazpenari men egin baizik ez diogu egin.

Azkenik, pertsonalari produktibitateagatik emandako aldi baterako osagarria bideratu da, Alkatetzaren 1929/2015 Dekretuaren arabera, honako arrazoi hauek tarteko: gobernu talde osoa koordinazeko zereginak betetzeagatik; plan estrategikoak prestatzean, jarraitzean eta haien kontrola exekutatzean emandako laguntza eta sorospengatik; eta udal jarduerako arlo guztietan emandako aholkularitza bereziagatik. Zeregin horiek guztiak ez zaizkie euren lanpostuei egokitzen eta, gainerako kasuetan bezala, udalbatzaren urteko akordioan jasota daude eta horrek produktibitate osagarriak onartzen ditu ekitaldi bakoitzaren hasieran, betiere lanpostu bati ez egokitutako aparteko zereginak betetzeko irizpideei buruzko B atalaren barruan<sup>1</sup> (udalbatzaren 2002ko apirilaren 30eko erabakia).

#### 4. ALEGAZIOA, KONTRATAZIOARI BURUZKO III.1.4. PUNTUARI DAGOKIONA

I.- San Migeletik Basauriko metroko geltokirainoko bidaiari garraioaren zerbitzuaren kontratuari dagokionez, honakoa zehaztu beharra dago:

I.1.- Zerbitzu horren prestazioaren oinarria da San Migeleko biztanleen eskura doako zerbitzu bat jartzeko erabaki politikoa, betiere metrotik hurbilen dagoen sarreraraino hurbil daitezke; horretaz Basauriko auzokide guztiak baliatzen dira. Eskumeneko interes publikoa du, San Migeleko auzokideei zerbitzuak ematean berdintasun printzipioa beteko dela bermatzeko (auzo horretan metrotik hurbilen dagoen sarreratik 1.500 metro baino gehiago dituzte); gauzak horrela, doako garraio zerbitzua, anezka moldekoa, eskaini behar zitzaien, beste udal mugarte batzuetan egiten den legez. Beraz, ezin har daiteke kontraprestazio bidez ohiko bidaiari garraio batekin identifika daitekeen zerbitzutzat, baizik eta hurbiltze zerbitzutzat.

I.2.- Kontratazio prozeduraz denaz bezainbatean, anezkaren ibilbideak eta Bizkaibuseko lineena bat datozen eta hiriarteko garraio zerbitzu horren adjudikaziodunaren eskubide eskusiboari eragin ahal izan zaien neurrian, anezkaren zerbitzua prozedura negoziatu bidez kontratatzeke hautua egin da, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 170.1.d) artikulua ezarritakoaren arabera (azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzazko Errege Dekretuak onartutako testu bategina), betiere eskubide eskusibo horiek babesteko; halaber, adierazi beharra dago udal kontratua ABEEen lehiatutako eta Bizkaibuseko Nerbioi-Arratia-Durungaldea lineen adjudikaziodunak izandako beste bi sozietateekin bidera zitekeela, biek modu solidarioan eskubide eskusiboa baitzuten.

I.3.- Aldi baterako jomuga duen zerbitzu prestazioko kontratua da; izan ere, hori suntsiaraztea aurreikusten da, Garraio Partzuergoak eta Foru Aldundiak metro zerbitzuko

<sup>1</sup> Aipatutako erabakiak karrerako eta bitarteko funtzionarioei soilik aitortzen die osagarria eskuratzeko kolektibo izaera.

txartela erabiltzeko sistema ezartzen dutenean, San Migel auzotik Basauriko metroko geltokirainoko joan-etorria egiteko.

